**ORGANOA:** Udalbatzar Txit Garaia
**ÓRGANO:** Excmo. Ayuntamiento Pleno

**BATZARRALDIA:** Ohikoa
**SESIÓN:** Ordinaria

**TOKIA:** Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa
**LUGAR:** Salón de Plenos de la Casa Consistorial

**EGUNA:** 2018ko apirilaren 26
**FECHA:** 26 de abril de 2018

**HASIERA ORDUA:** 09:30
**HORA DE COMIENZO:** 09:30

**LEHENDAKARIA:** Eneko Goia Laso jauna, Donostiako Udal Txit Garaiko Alkatea.
**PRESIDE:** Don Eneko Goia Laso, Alcalde del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián.

**ETORRITAKOAK:** Alkateorde jaun-andreak:
**ASISTEN:** Los/las señores/as Tenientes de Alcalde:

Don Ernesto José Gasco Gonzalo jauna
Doña Miren Azkarate Villar andrea
Doña Duñike Agirrezabalaga Ugarte andrea
Don Juan Ramón Viles Mitxelena jauna

Eta ondorengo zinegotzi jaun-andreak:
Y los/las señores concejales/as:

Doña Pilar Arana Pérez andrea
Don Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga jauna
Doña Aitziber San Román Abete andrea
Don Martín Ibabe Eceiza jauna
Doña María Jesús Celaya Egiguren andrea
Don Jon Insausti Maisterrena jauna
Don Enrique José Ramos Vispo jauna
Don Miguel Ángel Díez Bustos jauna
Doña María Luisa del Pilar García Gurruchaga andrea
Don Alfonso Gurpegui Ruiz jauna
Doña Ane Oyarbide Ochoa andrea
Doña Miren Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andrea
Don Josu Mirena Ruiz Martín jauna
Doña Naiara Sampedro Pérez andrea

Don Ayem Oskoz Urrutikoetxea jauna
Doña Olaia Duarte López andrea
Don Ricardo Burutaran Ferré jauna
Doña Miren Albistur Garmendia andrea
Don José Luis Arrúe Pintó jauna
Don José María Murguiondo Casal jauna
Doña Amaia Martín Garín andrea
Don Loïc Alejandro jauna

**IDAZKARIA:** Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga jauna, Donostiako Udal Txit Garaiko Udalbatzarreko idazkari nagusia.

**SECRETARIO:** Don Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga, Secretario General del Pleno del Excmo. Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián.

**KONTU-HARTZAILEA:** Julian Ortiz Arruabarrena jauna, Udal Kontuhartzaile Nagusia.

**INTERVENTOR:** Don Julián Ortiz Arruabarrena, Interventor General Municipal.

---------------


| LABURPENA | Zk/ N.º | SUMARIO | Pág / Orr. |
|---|---|---|---|
| Gai Zerrendatik Kanpoko 1.go gaia presazkotzat jotzea. | | Tratamiento de Urgencia del asunto N.º 1 Fuera del Orden del Día del Pleno. | 5 |
| 2018ko martxoaren 22an izandako bileraren akta onartzea, ontzat joz gero. | 1 | Aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el 22 de marzo de 2018. | 5 |
| Kontu ematea Ekialdeko Barrutiko Udal Batzorderako udal ordezkariak izendatu izanaz. | 2 | Dar cuenta del nombramiento de representantes municipales en la Junta municipal del Distrito Este. | 6 |
| Kontu ematea Kursaal SA baltzurako ordezkaria aldatu izanaz. | 3 | Dar cuenta del cambio de representante municipal en la Sociedad Kursaal SA. | 7 |
| Udal zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatiko tasak arautzeko zergaren aldaketa behin betiko onartu izana berri ematea, Ordenantzako bidaiariak garraiatzeko hiri zerbitzu publikoaren tarifak, tarifak | 4 | Dar cuenta de la aprobación definitiva de la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora de las Tasas por la Prestación de Servicios y realización de Actividades municipales | 8 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| bateratzeko sistema abian jartzearen ondorioz. | | correspondiente a las tarifas del Servicio Urbano de Transporte Público de Viajeros. | |
| Eskuordetutako ahalmen eta eskuduntzak erabiltzeko arauei buruzko akordioaren aldaketaren berri ematea. | 5 | Dar cuenta de la modificación de las normas para el ejercicio de las facultades y atribuciones delegadas. | 10 |
| Bozeramaileen Batzordean onartutako erakunde adierazpenen berri ematea. | 6 | Dar cuenta de las Declaraciones Institucionales aprobadas en la Junta de Portavoces. | 14 |
| **ERABAKI ZATIA** | **I** | **PARTE RESOLUTIVA** | |
| **LURRALDE GARAPEN ETA PLANIFIKAZIO BATZORDEA** | | **COMISIÓN DE DESARROLLO Y PLANIFICACIÓN DEL TERRITORIO** | |
| Behin betiko onarpena ematea Zabalgunea CE.04 alorreko “Jatorra” zahar etxearen irisgarritasuna hobetzeko Hiri Berrikuntzarako Plan Bereziari. | 7 | Aprobación definitiva del Plan Especial de Renovación Urbana para la mejora de la accesibilidad en el hogar de jubilados “Club Jatorra” CE.04 Ensanche. | 15 |
| Behin betiko onarpena ematea Lauaizeta parkeko Merkear modulurako Antolamendu Plan Bereziari. | 8 | Aprobación definitiva del Plan Especial de Ordenación para el “Módulo Merkear” del Parque Lau-Haizeta. | 19 |
| Behin betiko onarpena ematea “Lazkano AY.07” esparruko “g.00.1 osasun ekipamendua” lursailaren hirigintza antolatzeko plan bereziaren aldaketari. | 9 | Aprobación definitiva de la Modificación del Plan Especial de Ordenación Urbana de la parcela “g.00.1 Equipamiento Sanitario” en el ámbito AY.07 Lazkano. | 23 |
| **OGASUNEKO BATZORDEA** | | **COMISIÓN DE HACIENDA** | |
| Arau-proposamen bat onartzeko ekimena, PP taldeak aurkeztua, ibilgailuak aparkatzeagatiko tasak arautzeko zerga-ordenantza aldatzekoa. | 10 | Iniciativa de proposición normativa del Grupo PP para modificar la ordenanza fiscal reguladora de las tasas por el estacionamiento de vehículos. | 26 |
| **KONTRATAZIOA KONTROLATZEKO ETA JAKITUN EGOTEKO BATZORDE BEREZIA** | | **COMISIÓN ESPECIAL DE CONTROL Y SEGUIMIENTO DE LA CONTRATACIÓN** | |
| 2017ko ekitaldiari dagokion oroitidazkiaren berri ematea. | 11 | Dar cuenta de la Memoria correspondiente al ejercicio 2017. | 29 |
| **IRADOKIZUN ETA ERREKLAMAZIO BATZORDE BEREZIA** | | **COMISIÓN ESPECIAL DE SUGERENCIAS Y RECLAMACIONES** | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 2017ko Erreklamazio Batzordearen txostenaren berri ematea. | 12 | Dar cuenta del Informe correspondiente al año 2017. | 31 |
| **INFORMAZIO, SUSTAPEN ETA KONTROLA** | **II** | **INFORMACIÓN, IMPULSO Y CONTROL** | |
| **MOZIOAK** | | **MOCIONES** | |
| **KONTROL MOZIOAK** | **II.1** | **MOCIONES DE CONTROL** | 32 |


--------------

**DONOSTIAKO UDALBATZAR TXIT GARAIAREN OSOKO BILKURA OHIKOA HASITAKOTZAT JOTZEN DA.**

**SE DECLARA ABIERTA LA SESIÓN PLENARIA ORDINARIA DEL EXCMO. AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN.**

--------------

**GAI ZERRENDAKO AZTERGAIAK BOZKATZERAKOAN FALTA ZIREN ZINEGOTZIAK:**

**- OLAIA DUARTE LOPEZ ANDREA (EH BILDU) GZK. 1.GO, 1.GO, 2., 3. ETA 4. GAIEN BOZKETAN ETA 12. KONTROL MOZIOAREN BOZKETAN.**

**- JAIME DOMINGUEZ-MACAYA LAURNAGA JAUNA (EAJ-PNV) 2. KONTROL MOZIOAREN BOZKETAN.**

**- MARTIN IBABE ECEIZA JAUNA (EAJ-PNV) 3. ETA 4. KONTROL MOZIOEN BOZKETAN.**

**- ERNESTO GASCO GONZALO JAUNA (PSE-EE) 9. KONTROL MOZIOAREN BOZKETAN.**

**- MIREN ALBISTUR GARMENDIA ANDREA**

**AUSENCIAS DE LOS SRES. CORPORATIVOS A LA VOTACIÓN DE LOS DIFERENTES PUNTOS DEL ORDEN DEL DÍA:**

**- D.ª OLAIA DUARTE LÓPEZ (EH BILDU) EN LA VOTACIÓN DE LOS ASUNTOS FOD N.º 1, N.º 1, N.º 2, N.º 3 Y N.º 4 Y EN LA VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 12.**

**- D. JAIME DOMÍNGUEZ-MACAYA LAURNAGA (EAJ-PNV) EN LA VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 2.**

**- D. MARTÍN IBABE ECEIZA (EAJ-PNV) EN LA VOTACIÓN DE LAS MOCIONES DE CONTROL N.º 3 Y N.º 4.**

**- D. ERNESTO GASCO GONZALO (PSE-EE) EN LA VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 9.**

**- D.ª MIREN ALBISTUR GARMENDIA (PP) EN**

**(PP) 9. KONTROL MOZIOAREN BOZKETAN.**

**- MIREN AZKARATE VILLAR ANDREA (EAJ-PNV) 11. ETA 12. KONTROL MOZIOEN BOZKETAN.**

**LA VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 9.**

**- D.ª MIREN AZKARATE VILLAR (EAJ-PNV) EN LA VOTACIÓN DE LAS MOCIONES DE CONTROL N.º 11 Y N.º 12.**

--------------

**Gai Zerrendatik Kanpoko 1.go gaia presazkotzat jotzea.**

**Tratamiento de Urgencia del asunto N.º 1 Fuera del Orden del Día del Pleno.**

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Miren Albistur Garmendia andreak, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Enrique Ramos Vispo jaunak eta Jon Insausti Maisterrena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Loïc Alejandro, D.ª Miren Albistur Garmendia, D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D. Enrique Ramos Vispo y D. Jon Insausti Maisterrena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK:7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**1. 2018ko martxoaren 22an izandako bileraren akta onartzea, ontzat joz gero.**

**1. Aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el 22 de marzo de 2018.**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**2. Kontu ematea Ekialdeko Barrutiko Udal Batzorderako udal ordezkariak izendatu izanaz.**

“UDALBATZARI

Donostiako Barrutien Organo Araudiaren 14.1 artikuluaren arabera, Barrutiko Batzarrak hamabost kide hauek izango ditu:

- Barrutiko Batzarreko zinegotzi-burua.

- Barrutiko Batzarreko zinegotzi-buruordea.

- Bost kide, udal ordezkaritza duten talde politikoek proposatutakoak. Zazpi pertsona horien izendapena proportzionala izango da beren udal taldeek Udalbatzan duten ordezkaritzarekiko.
- Auzo elkarteetako lau kide. Elkarteak, estatutuen arabera zabalik herritar guztientzat, inskribatuak egongo dira Herri Entitateen Erregistroan, eta, kideak hautatzeko, Araudi honetan ezarritako prozedura erabiliko da.

- Arloko entitateetako lau kide; hala nola kultur elkarteak, kirol elkarteak, hezkuntza alorrekoak, etab. Horiek ere, Herri Entitateen Erregistroan inskribatuta egongo dira, eta, aurreko kasuan bezala, kideak hautatzeko, Araudi honetan ezarritako prozedura erabiliko da.

Hala, alkateak 2018ko martxoaren 9an eta 16an hartutako ebazpenak direla bitarte, Ekialdeko Barrutiko Batzarreko zinegotzi-burua eta zinegotzi-buruordea izendatu ziren, hurrenez hurren.

**2. Dar cuenta del nombramiento de representantes municipales en la Junta municipal del Distrito Este.**

“AL EXCELENTISIMO AYUNTAMIENTO PLENO

Conforme a lo previsto en el artículo 14.1 del Reglamento Orgánico de los Distritos de la ciudad, la Junta Municipal de Distrito estará compuesta por los siguientes quince miembros:

- La persona Concejal-Presidente de la Junta de Distrito.
- La persona Concejal-Vicepresidente de la Junta de Distrito.
- Cinco Vocales, a propuesta de los grupos políticos con representación municipal. Las siete personas se distribuirán en número proporcional a la representación de sus respectivos Grupos municipales en el Pleno.
- Cuatro representantes de asociaciones vecinales, a las que pueda pertenecer, según sus estatutos, cualquier vecino territorial de la Asociación, inscritas en el Registro Municipal de Entidades y elegidas de conformidad con el procedimiento establecido en el presente Reglamento.
- Cuatro representantes de entidades sectoriales, tales como entidades culturales, deportivas, educativas, etc., inscritas igualmente en el Registro Municipal de Entidades, y elegidas conforme al procedimiento establecido en el presente Reglamento.

Mediante Resoluciones de Alcaldía de fechas 9 de marzo y 16 de marzo de 2018 han sido nombradas, respectivamente, la persona Concejal-Presidente y la persona Concejal-Vicepresidente del distrito Este.

Era berean, udal taldeen bozeramaileen jakinarazpenen bidez, batzar horretan parte hartu eta taldeen ordezkari izango diren 5 kideak ere izendatu ziren.

Hauek dira horrela izendatutako pertsonak:

| Titularrak | Ordezkoak |
| --- | --- |
| MIGUEL ANGEL DIEZ BUSTOS (Burua) | MAITE SANCHEZ GARCIA |
| MARTIN IBABE EZEIZA (Bururordea) | JON INSAUSTI MAISTERRENA |
| DUÑIKE AGIRREZABALAGA UGARTE | ENRIQUE RAMOS VISPO |
| MIREN ALBISTUR GARMENDIA | JOSE LUIS ARRUE PINTO |
| RAFAEL MUNILLA ZABALZA | IVAN LARRAZA VILA |
| MANEX RALLA ARREGI | AMAIA ALMIRALL LOPEZ DE LUZURIAGA |
| HARRITOKIETA LARRAÑAGA ALZAGA | JOSU RUIZ MARTIN |

Horrenbestez, bada, izendapen horien berri ematen diogu orain Udalbatzari.

Asimismo, mediante comunicaciones de los/as Portavoces de los Grupos Municipales han sido designados los 5 vocales que, en representación de los Grupos, han de formar parte de la Junta.

Las personas nombradas y designadas han sido las siguientes:

| Titulares | Suplentes |
| --- | --- |
| MIGUEL ANGEL DIEZ BUSTOS (Presidente) | MAITE SANCHEZ GARCIA |
| MARTIN IBABE EZEIZA (Vicepresidente) | JON INSAUSTI MAISTERRENA |
| DUÑIKE AGIRREZABALAGA UGARTE | ENRIQUE RAMOS VISPO |
| MIREN ALBISTUR GARMENDIA | JOSE LUIS ARRUE PINTO |
| RAFAEL MUNILLA ZABALZA | IVAN LARRAZA VILA |
| MANEX RALLA ARREGI | AMAIA ALMIRALL LOPEZ DE LUZURIAGA |
| HARRITOKIETA LARRAÑAGA ALZAGA | JOSU RUIZ MARTIN |

Por lo expuesto, se da cuenta al Excmo. Ayuntamiento Pleno de los nombramientos y designaciones realizadas.

Donostian, 2018ko apirilaren 17an

Idazkari Orokorra
Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga”.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**JAKINEAN.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**ENTERADO.**

---------------

**3. Kontu ematea Kursaal SA baltzurako ordezkaria aldatu izanaz.**

“UDALBATZARI

EAJ/PNV udal taldearen bozeramaileak Centro Kursaal-Kursaal Elkargunea SAn bere ordezkarien aldaketa adierazi du, ondorengo

**3. Dar cuenta del cambio de representante municipal en la Sociedad Kursaal SA.**

“AL EXCMO. AYUNTAMIENTO PLENO

El portavoz del grupo municipal EAJ-PNV ha comunicado el cambio de su representante en el Centro Kursaal-Kursaal Elkargunea SA,

modu honetan geratuz. Eta horren berri ematen zaio Udalbatzari:

quedando del siguiente modo, de lo que se da cuenta al Excmo. Ayuntamiento Pleno:

Centro Kursaal-Kursaal Elkargunea SA
TITULARRA
TITULAR

Jaime Otamendi Muñagorri

Donostian, 2018ko apirilaren 17 an

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIA
Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA".

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**JAKINEAN.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**ENTERADO.**

---------------

**4. Udal zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatiko tasak arautzeko zergaren aldaketa behin betiko onartu izana berri ematea, Ordenantzako bidaiariak garraiatzeko hiri zerbitzu publikoaren tarifak, tarifak bateratzeko sistema abian jartzearen ondorioz.**

**4. Dar cuenta de la aprobación definitiva de la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora de las Tasas por la Prestación de Servicios y realización de Actividades municipales correspondiente a las tarifas del Servicio Urbano de Transporte Público de Viajeros.**

"UDALBATZARI

"AL AYUNTAMIENTO PLENO

Donostiako Udalbatzak, 2018ko otsailaren 22an eginiko bilkuran, hasiera batean onartu zuen Udalak ematen dituen zerbitzuak emateko eta egiten dituen ekintzak egiteko tasak arautzeko zerga ordenantzako Bidaiarien garraio publikoko hiri zerbitzuaren 2016ko tarifak.

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 22 de febrero de 2018, aprobó la propuesta de modificación de las Tasas por el Prestación de Servicios y la Realización de Actividades municipales en lo referente al anexo al Servicio de Transporte de Viajeros de 2016.

Hasierako onarpenaren iragarkia 2018ko otzailaren 23an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2018ko otsailaren 24an Diario Vascon eta 2018ko otsailaren 26an udaletxeko iragarki taulan; hala, jendaurrean jarrita edukitzeko epea hasi zen.

Con fecha 23 de febrero de 2018 se insertó el anuncio de la citada modificación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa; en el Diario Vasco se público en 24 de febrero de 2018 y en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento el 26 de febrero de 2018, abriéndose el plazo de exposición pública.

Epe hori 2018ko apirilaren 14an bukatu zen, eta ez da erreklamaziorik aurkeztu.

Finalizado dicho plazo el 14 de abril de 2018, no consta que haya sido presentada reclamación alguna.

Horrenbestez, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legeko 49. artikuluko azken paragrafoan xedaturikoarekin bat, egun horretatik aurrera hasierako onarpen erabakia behin betiko onartutzat jo daiteke eta, horren ondorioz, orain aldaketaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da.

En consecuencia, de conformidad con lo dispuesto en el último párrafo del artículo 49 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases del Régimen Local, a partir de esa fecha puede entenderse definitivamente adoptado el acuerdo de aprobación inicial y procede, por tanto, la publicación del texto íntegro de la modificación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Halaber, eta zentzu horretan, Donostiako Udaleko Udalbatzaren Araudi Organikoaren 113. artikuluak honako hau xedatzen du: "alegaziorik edo iradokizunik aurkeztu ezean, ordu arte behin-behinekoa zen erabakia behin betiko bilakatuko da, Tokiko Gobernu Batzarrak gertakari hori Idazkaritza Nagusiari jakinaraziko dio, eta azken horrek beharrezko gestioak egingo ditu Udalbatzari behin betiko onarpenaren berri emateko".

Así mismo, y en este mismo sentido, el art. 113 del Reglamento Orgánico del Pleno del Excmo. Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián señala que “en caso de que no se hubiera presentado reclamación o sugerencia se convierte en definitivo el acuerdo de aprobación hasta entonces provisional y que la Junta de Gobierno comunicará dicha circunstancia a la Secretaría General quien llevará a cabo las gestiones oportunas para dar cuenta de la aprobación definitiva al Pleno.”

Horiek horrela, Udalbatzari jakinarazi zaio behin betiko onartu direla aipatutako Udalak ematen dtuen zerbitzuak emateko eta egiten dituen ekintzak egiteko tasak arautzeko zerga ordenantzako aldaketa proposamena, Bidaiarien garraio publikoko hiri zerbitzuaren eranskinari dagokiona. Erabaki hau 2018ko apirilaren 16tik aurrera izango da indarrean. Behin betiko onarpen-akordioa eta aldaketari dagokion testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

Por lo expuesto, se da cuenta al Excmo. Ayuntamiento Pleno de la aprobación definitiva de la propuesta de modificación de las Tasas por el Prestación de Servicios y la Realización de Actividades municipales en lo referente al Anexo al Servicio de Transporte de Viajeros, con efectos a partir del 16 de abril de 2018 y se dispone la publicación de este acuerdo de aprobación definitiva, así como el texto íntegro de la modificación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Donostian, 2018ko apirilaren 17an

UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIA
Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga”.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**JAKINEAN.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**ENTERADO.**

---------------

**5. Eskuordetutako ahalmen eta eskuduntzak erabiltzeko arauei buruzko akordioaren aldaketaren berri ematea.**

“GOBERNU BATZARRARI

ESKUORDETUTAKO AHALMEN ETA ESKUDUNTZAK ERABILTZEKO ARAUEI BURUZKO AKORDIOA ALDATZEA

Donostiako Udaleko Gobernu Batzarrak 2015eko ekainaren 19ko bileran bere eskumenetako batzuk udal gobernua osatzen duten zinegotzien esku uztea erabakitzeaz gain, ordezkaritzan emaniko ahalmenak eta eskumenak erabiltzeko arauak ere onartu zituen.

Arauotako 6. atalak xedatzen du nola ordezkatuko diren zuzendari ordezkariak, horiek 24 orduan baino gehiagoan gaixorik edo kanpoan egon nahiz bestelako ezinen bat izanez gero.

Gobernu Batzarrak beste eskuorde edo ordezkari batzuk izendatzea erabaki zuen 2018ko urtarrilaren 30ean izan zuen bileran: Jon Insausti Maisterrena, Kulturako eta Hezkuntzako ordezkari; eta Ane Oyarbide Ochoa, Ingurumeneko ordezkari. Hori dela eta, aldaketa batzuk egin behar dira horien ordezkapenetan, eskuorde berri horien ordezkoak izendatu ahal izateko, besteak beste.

Beraz, hauxe da alkatetza honek proposatzen duen

**5. Dar cuenta de la modificación de las normas para el ejercicio de las facultades y atribuciones delegadas.**

“A LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

MODIFICACION DE LAS NORMAS PARA EL EJERCICIO DE LAS FACULTADES Y ATRIBUCIONES DELEGADAS

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el día 19 de junio de 2015, además de acordar la delegación de parte de sus competencias en los/as concejales/as que integran el gobierno municipal, aprobó las normas para el ejercicio de las facultades y atribuciones delegadas.

El apartado 6 de dichas Normas prevé el modo en el que los concejales Delegados serán sustituidos en los casos de ausencia, enfermedad e impedimento por período superior a 24 horas.

Las nuevas delegaciones acordadas por la Junta de Gobierno local con fecha 30 de enero de 2018, nombrando Delegado de Cultura y Educación a D. Jon Insausti Maisterrena y Delegada de Medio Ambiente a Dª Ane Oyarbide Ochoa, obligan a introducir algunas modificaciones en dichas sustituciones; entre otras, para prever a las personas que han de sustituir a la nueva y al nuevo Delegado.

Por todo ello, esta Alcaldía propone la adopción del siguiente

AKORDIOA

LEHENA.- Eskuordetutako ahalmen eta eskumenak erabiltzeko arauei buruz Gobernu Batzarrak 2015eko ekainaren 19an hartutako erabakiko 6. ataleko 4. azpiatala aldatu eta honela uztea:

4. Ordezkotzak honela gauzatuko dira:

- Euskarako Ordezkaritza:

Lehen ordezkoa: Juan Ramón Viles Mitxelena

Bigarren ordezkoa: Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga

- Hirigintza Sostengagarriko, Etxebizitzako eta Hiri Proiektuetako ordezkaritza:

Lehen ordezkoa: Ernesto José Gasco Gonzalo

Bigarren ordezkoa: Duñike Agirrezabalaga Ugarte

- Ogasuneko eta Finantzetako ordezkaritza:

Lehen ordezkoa: Juan Ramón Viles Mitxelena

Bigarren ordezkoa: Aitziber San Román Abete

- Gune Publikoetako eta Festa Jardueretako Ordezkaritza:

Lehen ordezkoa: Miguel Ángel Diez Bustos

Bigarren ordezkoa: Duñike Agirrezabalaga Ugarte

ACUERDO

PRIMERO.- Modificar el subapartado 4 del apartado 6 del Acuerdo de la Junta de Gobierno Local de fecha 19 de junio de 2015, sobre las Normas para el ejercicio de las facultades y atribuciones delegadas, que queda redactado como sigue:

4. Las sustituciones se producirán de la siguiente manera:

- Delegada de Euskara:

Primer sustituto: Juan Ramón Viles Mitxelena

Segundo sustituto: Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga

- Delegado de Urbanismo Sostenible, Vivienda y Proyectos de Ciudad:

Primer sustituto: Ernesto José Gasco Gonzalo

Segunda sustituta: Duñike Agirrezaba-laga Ugarte

- Delegado de Hacienda y Finanzas:

Primer sustituto: Juan Ramón Viles Mitxelena

Segunda sustituta: Aitziber San Román Abete

- Delegado de Espacios Públicos y Actividades Festivas:

Primer sustituto: Miguel Ángel Diez Bustos

Segunda sustituta: Duñike Agirrezabalaga Ugarte

- Kiroletako eta Gazteriako, Herri Segurtasuneko eta Herri Babeseko Ordezkaritza.

Lehen ordezkoa: Aitziber San Román Abete.

Bigarren ordezkoa: Pilar Arana Pérez.

- Ekonomia Bultzatzeko, Merkataritzako, Ostalaritzakko eta Turismoko Ordezkaritza:

Lehen ordezkoa: Enrique José Ramos Vispo.

Bigarren ordezkoa: Alfonso Gurpegui Ruiz

- Gizarte Ekintzako Ordezkaritza:

Lehen ordezkoa: Martín Ibabe Eceiza.

Bigarren ordezkoa: Pilar Arana Pérez.

- Mugikortasuneko eta Garraioko Ordezkaritza:

Lehen ordezkoa: Martín Ibabe Eceiza.

Bigarren ordezkoa: Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga.

- Lehendakaritzako eta Gardentasuneko, Giza Baliabideetako eta Berrikuntzako Ordezkaritza:

Lehen ordezkoa: Pilar Arana Pérez.

Bigarren ordezkoa: Aitziber San Román Abete.

- Auzoetako eta Deszentralizazioko, Erantzunkidetasun Zibikoko, Berdintasuneko eta Lankidetzako Ordezkaritza:

Lehen ordezkoa: Miguel Ángel Diez Bustos.

- Delegado de Deportes y Juventud, Seguridad Ciudadana y Protección Civil:

Primer sustituto:  Aitziber San Román Abete.

Segunda sustituta: Pilar Arana Pérez.

- Delegado de Impulso Económico, Comercio, Hostelería y Turismo:

Primer sustituto: Enrique José Ramos Vispo.

Segundo sustituto: Alfonso Gurpegui Ruiz

- Delegada de Acción Social:

Primer sustituto: Martín Ibabe Eceiza.

Segunda sustituta: Pilar Arana Pérez.

- Delegada de Movilidad y Transporte:

Primer sustituto: Martín Ibabe Eceiza.

Segundo sustituto: Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga.

- Delegado de Presidencia y Transparencia, Recursos Humanos e Innovación:

Primera sustituta: Pilar Arana Pérez.

Segunda sustituta: Aitziber San Román Abete.

- Delegada de Barrios y Descentralización, Corresponsabilidad Cívica, Igualdad y Cooperación:

Primer sustituto: Miguel Ángel Diez Bustos.

Bigarren ordezkoa: Enrique Ramos Vispo.

- Bide Publikoetako Ordezkaritza:

Lehen ordezkoa: Alfonso Gurpegui Ruiz.

Bigarren ordezkoa: Duñike Agirrezabalaga Ugarte.

- Kulturako eta Hezkuntzako Ordezkaritza:

Lehen ordezkoa: Juan Ramón Viles Mitxelena

Bigarren ordezkoa: Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga

- Ingurumeneko Ordezkaritza:

Lehen ordezkoa: Alfonso Gurpegui Ruiz.

Bigarren ordezkoa: Miguel Angel Diez Bustos.

Idazkaritza Nagusia-Lege Zuzendaritzaren eta Kontuhartzailetzaren arduradunei dagokienez ere, nazio osorako gaikuntza duten funtzionarioentzako ordezkatze mekanismoak egongo dira indarrean.

BIGARRENA. Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, AOAJAko 46 eta 52. artikuluetan xedatutakoa betetzeko.

HIRUGARRENA.- Hurrena egiten duen bileran ematea erabaki horren berri Udalbatzari.

Segundo sustituto: Enrique Ramos Vispo.

- Delegado de Vías Públicas :

Primer sustituto: Alfonso Gurpegui Ruiz.

Segunda sustituta: Duñike Agirrezabalaga Ugarte.

- Delegado de Cultura y Educación:

Primer sustituto: Juan Ramón Viles Mitxelena

Segundo sustituto: Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga

- Delegada de Medio Ambiente:

Primer sustituto: Alfonso Gurpegui Ruiz.

Segundo sustituto: Miguel Ángel Diez Bustos.

En el caso de los titulares de Secretaría General-Dirección Jurídica y de la Intervención operarán los mecanismos de suplencia establecidos para los funcionarios con habilitación de carácter nacional.

SEGUNDO. Proceder a la publicación del presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa en cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 46 y 52 del ROFRG.

TERCERO.- Dar cuenta de dicho acuerdo al Pleno en la próxima sesión que celebre.

Donostia, 2018ko martxoaren 12a

ALKATEA
ENEKO GOIA LASO”.

**BOZKETAREN EMAITZA:
JAKINEAN.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
ENTERADO.**

---------------

**6. Bozeramaileen Batzordean onartutako erakunde adierazpenen berri ematea.**

**6. Dar cuenta de las Declaraciones Institucionales aprobadas en la Junta de Portavoces.**

“Udalbatzari:

“Al Ayuntamiento Pleno se da cuenta de:

1.- 2018ko apirilaren 24an Bozeramaileen Batzordean onartutako Erakunde Adierazpenen berri ematen zaio:

1.- Declaraciones Institucionales aprobadas en Junta de Portavoces de fecha 24 de abril de 2018:

Erakunde adierazpena, EH BILDU Taldeak aurkeztua, preso politiko sahararren egoerak okerrera egin izanak sortzen duen kezka larria dela eta. PUNTUKA BOZKATU DA:

Declaración Institucional presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la extrema preocupación ante el deterioro de la situación de los presos políticos saharauis. VOTACIÓN POR PUNTOS:

- 1.go eta 3. Puntuak: Aho batez onartuak.

- Puntos nº1 y nº3: Aprobados por unanimidad.

- 2. eta 4. Puntuak: Gehiengoz onartuak, EAJ/PNV, EH BILDU, PP eta IRABAZI DONOSTIA Taldeko Bozeramaileen aldeko botoekin eta PSE-EE Taldeko Bozeramailearen abstentzioarekin.

- Puntos nº2 y nº4: Aprobados por mayoría, con los votos a favor de los Portavoces de los Grupos EAJ/PNV, EH BILDU, PP e IRABAZI DONOSTIA y la abstención del Portavoz del Grupo PSE-EE.

Erakunde adierazpena, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Marielle Franco eta Maria Guadalupe Hernandez ekintzaile feministak eta lesbianak hil dituztela-eta. (Aho batez onartua).

Declaración Institucional presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el asesinato de las activistas feministas y lesbianas, Marielle Franco y María Guadalupe Hernández. (Aprobada por unanimidad).

Erakunde adierazpena, EH BILDU Taldeak aurkeztua, “Mugak zabalduz” karabana Euskal Herrian dela-eta. PUNTUKA BOZKATU DA:

Declaración Institucional presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la caravana “Mugak Zabalduz” a su paso por Euskal Herria. VOTACIÓN POR PUNTOS:

- 3. Puntua: Aho batez onartua.

- Punto nº3: Aprobado por unanimidad.

Erakunde adierazpen bateratua, EAJ/PNV,

Declaración Institucional conjunta presentada por

PSE-EE, EH BILDU, PP eta IRABAZI DONOSTIA taldeek aurkeztua, Proemaid gke-ko hiru suhiltzaile erreskatatzaile boluntarioei elkartasuna eta babesa azaltzeko. (Aho batez onartua).

los Grupos EAJ/PNV, PSE-EE, EH BILDU, PP e IRABAZI DONOSTIA de solidaridad y apoyo a los tres bomberos rescatadores voluntarios de la ONG Proemaid. (Aprobada por unanimidad).

Donostian, 2018ko apirilaren 24an

IDAZKARI NAGUSIA
EL SECRETARIO GENERAL
Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA".

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**JAKINEAN.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**ENTERADO.**

---------------

**I**

**ERABAKI ZATIA**

**I**

**PARTE RESOLUTIVA**

**LURRALDE GARAPEN ETA PLANIFIKAZIO BATZORDEA**

**COMISIÓN DE DESARROLLO Y PLANIFICACIÓN DEL TERRITORIO**

**7. Behin betiko onarpena ematea Zabalgunea CE.04 alorreko "Jatorra" zahar etxearen irisgarritasuna hobetzeko Hiri Berrikuntzarako Plan Bereziari.**

"JATORRA" ZAHAR ETXEAREN IRISGARRITASUNA HOBETZEKO HIRI BERRIKUNTZARAKO PLAN BEREZIARI "CE.04 ZABALGUNEA" BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA

2017.ko ekainaren 16an, 3494 sarrera erregistroarekin, CE.04. ZABALGUNEA Jatorra Zahar Etxearen Irisgarritasuna Hobetzeko Hiri Berrikuntzarako Plan Berezia aurkeztu du, berau izapidetu eta onar dadin.

**7. Aprobación definitiva del Plan Especial de Renovación Urbana para la mejora de la accesibilidad en el hogar de jubilados "Club Jatorra" CE.04 Ensanche.**

"APROBACIÓN DEFINITIVA DEL PLAN ESPECIAL DE RENOVACIÓN URBANA PARA LA MEJORA DE LA ACCESIBILIDAD EN EL HOGAR DE JUBILADOS "CLUB JATORRA" CE.04 ENSANCHE

El 16 de junio de 2017, con registro de entrada nº 3494, Rodrigo Milla Azcona, presenta para su tramitación y aprobación el Plan Especial de Renovación Urbana para la mejora de la accesibilidad en el Hogar de Jubilados "Club

Jatorra" CE.04 Ensanche.

Plan Berezi honek JATORRA ZAHAR ETXEAREN lokalaren irisgarritasuna hobetzeko esku-hartzearen antolamendu xehatua egitea. Zahar etxea Donostiako Larramendi kaleko 14 zenbakian dago.

El fin del Plan Especial es ordenar pormenorizamente la intervención consistente en mejorar la accesibilidad del local del HOGAR DEL JUBILADO JATORRA ubicado en la Calle Larramendi 14, en Donostia - San Sebastián.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2017.ko irailaren 19an honako akordio hau onartu zuen:

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 19 de septiembre de 2017, adoptó el siguiente acuerdo:

1.- Hasierako onarpena ematea "CE.04 ZABALKUNDEA" Jatorra Zahar Etxearen Irisgarritasuna Hobetzeko Hiri Berrikuntzarako Plan Bereziari honako baldintza hauekin:

1º.- Aprobar con carácter inicial el Plan Especial de Ordenación Urbana para la mejora de la accesibilidad en el Hogar de Jubilados "Club Jatorra" "CE.04 ENSANCHE"con la siguientes condiciones:

1.- Eraikin guztien altxaeraren dokumentazioa aurkeztu behar da, eta egiaztatu baoak ez direla ukituko eta bi fatxaden segurtasun eta funtzionaltasun baldintzak ez direla ez mugatuko eta ez aldatuko.

1.- Se deberá aportar documentación del alzado del conjunto de los edificios en el que se pueda comprobar que no quedan afectados sus huecos ni limitadas o modificadas las condiciones de seguridad y funcionalidad de ambas fachadas, con definición precisa de la distancia libre a observar entre el nuevo elemento y dichas fachadas.

2. Okupatutako azaleraren zonifikazio xehatua zuzendu behar da, hala planoetan nola testuan, bere hartan utzita gaur egun izendatua duena.

2. Se deberá corregir la zonificación pormenorizada de la superficie ocupada, tanto en planos como en el texto, manteniendo la que tiene asignada en la actualidad.

3. Jarduketaren ondoriozko altxaeran okupatuko den espazioak zer neurri izango dituen jasoko da plano batean, eta elementu hori ezartzeko idazten den proiektuan irtenbide berritzaileak erabili beharra dagoela sartuko da hirigintzako arauen 15. artikuluan.

3. Se deberá incorporar plano en el que se recojan las dimensiones del espacio que se prevé ocupar en alzado, resultantes de esta actuación, y se incluirá en el artículo 15 de las normas urbanísticas, la obligatoriedad del empleo de soluciones innovadoras en el proyecto que se redacte para la implantación de este elemento.

4.- Ingeniariaren txostenaren arabera 6. planoa zuzendu beharko da.

4.- De acuerdo con el informe de ingeniería deberá de corregirse el plano 6.

Behin betiko onarpenari dagokionez, espedientean dauden txostenetan ezarritako

Antes de la aprobación definitiva deberán de traer un nuevo texto que contenga las condiciones

baldintzak beteko dituen testu berri bat ekarri beharko da.

2.- Hogei egunean jendaurrera aterata edukitzea espedientea.

Jendaurrean egondako epean ez dira alegaziorik aurkeztu.

2018ko urtarrilaren 12an, Rodrigo Milla Azcona jaunak, norberaren izenean, behin betiko onarpenerako testu bateratua aurkeztu du, hau izanik Tokiko Gobernu Batzordera eramango dena.

Azkeneko dokumentuak honako aldeko txostenak ditu:

*Ingeniaria: 2018/01/16.

*Juridikoa: 2018/01/16 eta 14/02/2018.

*Arquitectura: 2018/02/13.

Horrenbestez, 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 97. artikuluak eta bete behar diren gainerako aginduek jartzen dutena aintzakotzat hartu eta izapidetu egin behar da plana.

Aurrekoagatik guztiagatik, eta Toki Araubidearen Oinarrien gaineko 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 123 i) artikuluak agintzen duena aintzakotzat hartuta, Donostiako udalbatzak

ERABAKI DU

1.- Behin betiko onarpena ematea “CE.04 ZABALKUNDEA” Jatorra Zahar Etxearen Irisgarritasuna Hobetzeko Hiri Berrikuntzarako Plan Bereziari honako baldintza hauekin:

2.-Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006

impuestas en los informes obrantes en el expediente.

2.- Someter el expediente al trámite de información pública durante el plazo de veinte días.

Durante el plazo de exposición pública no se han presentado alegaciones.

Con fecha 12 de enero de 2018 Rodrigo Milla Azkona en nombre propio, presenta el Texto Refundido para aprobación definitiva, siendo éste el ejemplar que se lleva para su aprobación a la Junta de Gobierno Local.

Este documento cuenta con los siguientes informes favorables para su aprobación definitiva:

*Ingeniero: 16/01/2018

*Jurídico: 16/01/2018 y 14/02/2018.

*Arquitectura: 13/02/2018.

Procede, en consecuencia su tramitación, de conformidad con lo establecido en el artículo 97 de la Ley 2/2006 de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo y demás preceptos de aplicación.

Visto cuanto antecede y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 123 i) de la ley 7/85 de 2 de Abril, reguladora de las Bases del régimen Local, el Pleno del Ayuntamiento de san Sebastián

A C U E R D A

1.- Aprobar definitivamente el Plan Especial de Ordenación Urbana para la mejora de la accesibilidad en el Hogar de Jubilados “Club Jatorra” “CE.04 ENSANCHE”.

2.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo

Legeko 89. artikuluak agintzen duena aintzakotzat hartu eta Planaren Hirigintza Arauak argitaratzea.

89 de la ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, proceder a la publicación de las Normas Urbanísticas del plan.

Udalbatzak onar dezan proposatua, Donostian, 2018ko otsailaren 21an.

Lo proponen para su adopción por el Pleno en San Sebastián a 21 de febrero de 2018.

HIRIGINTZAKO ANTOLAMENDU, EXEKUZIOKO ETA BIRGAIKUNTZA ZERBITZU BURUA /
EL JEFE DEL SERVICIO JURÍDICO ADMINISTRATIVO DE ORDENACIÓN, EJECUCIÓN Y REHABILITACIÓN
Izpta. / Fdo.: Jon Mikel Garagarza Roteta

HIRIGINTZA JASANGARRIRAKO ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE URBANISMO SOSTENIBLE
Sin. / Fdo.: Juan Carlos Cuevas Argandoña

HIRIGINTZA SOSTENGARRIRAKO, ETXEBIZITZAKO ETA HIRI PROIEKTUETAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA
EL CONCEJAL DELEGADO DE URBANISMO SOSTENIBLE, VIVIENDA Y PROYECTOS DE CIUDAD
Sin. / Fdo.: Enrique Ramos Vispo".

Eztabaida hasita, Enrique Ramos Vispo jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Miren Albistur Garmendia andreak, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Enrique Ramos Vispo, D. Loïc Alejandro, D.ª Miren Albistur Garmendia, D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D. Ernesto Gasco Gonzalo y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

---------------

**8. Behin betiko onarpena ematea Lauaizeta parkeko Merkear modulurako Antolamendu Plan Bereziari.**

“BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA LAU HAIZETA PARKEKO “MERKEAR MODULURAKO” ANTOLAMENDU PLAN BEREZIA

2016.ko apirilaren 22an, 111/1885 sarrera erregistroarekin, Cristina Zarrabaeitia Peñalbak Lau Haizeta Parkeko Merkear Modulorako Antolamendu Plan Berezia aurkezten du bere izapide eta onarpenerako.

Dokumentuaren xedeari dagokionez, Lau Haizeta Parkerako Antolamendu Plan Bereziaren helburu nagusiena parkearen esparru osoa antolatzea zen eta definitzea erabilera publikoko eremuak eta lurzoruaren lehen sektoreko ustiapenarekin lotzen diren lursailak. Parkearen dimentsioa aintzat hartuta, Planak hainbat modulu txikiago mugatu zituen eta horien artean dago Plan Berezi honen mende dagoen “Merkear Moduloa”.

Moduluak izen bereko errekaren ertzetik hedatzen da, eta 14.236 has-tako zabalera dauka. Planaren edukia da indarrean dagoen plangintzaren garapenerako antolamendu proposamen bat egitea eta, proposamen horren bitartez, ahalbidetzea futbol zelai bat eta dagozkion instalazio erantsiak (aldagelak, komunak,...). Era berean, Lau Haizetako Plan Berezian modulu horretarako planteatutako proposamen guztiak zehaztasun handiagoz antolatzea. Hauek dira: parkearen harrera eta informazio eraikina, jolas erabilera intentsiboagoko zona bat, aparkaleku zona baten zuzkidura, aurreikusita dagoen zonarako beharrezkoak diren zerbitzuak jasotzeko moduko eraikuntzaren onarpena.

**8. Aprobación definitiva del Plan Especial de Ordenación para el “Módulo Merkear” del Parque Lau-Haizeta.**

“APROBACIÓN DEFINITIVA DEL PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN PARA EL “MÓDULO MERKEAR” DEL PARQUE LAU-HAIZETA

El 22 de abril de 2016, con registro de entrada nº 111/1885, Cristina Zarrabeitia Peñalba presenta para su tramitación y aprobación el Plan Especial de Ordenación en el “Módulo Merkear” del Parque de Lau-Haizeta.

En cuanto al contenido del documento, el Plan Especial de Ordenación para el “Parque de Lau-Haizeta”, cuyo objetivo primordial era ordenar todo el ámbito del parque definiendo las áreas de uso público así como los terrenos ligados a la explotación primaria del suelo. Dada la dimensión del parque, el Plan delimitó una serie de Módulos más reducidos entre los que se encuentra el “Módulo Merkear”, situado en Suelo No Urbanizable junto al caserío Lau Haizeta.

El módulo se extiende sobre los márgenes de una regata y tiene una extensión de 14.236 has. El objeto del Plan es realizar una propuesta de ordenación en desarrollo del planeamiento vigente posibilitando que la propuesta de equipamiento comunitario deportivo en el módulo sea un campo de fútbol y sus instalaciones anejas, tales como vestuarios, aseos,etc. Así mismo, se quieren ordenar de forma más concreta todas las propuestas planteadas para el citado Módulo en el Plan Especial de Lau-Haizeta, las cuales son las siguientes: la ubicación de una edificación de acogida e información del parque, una zona de uso recreativo mas intensivo, la dotación de una zona de aparcamientos, así como, la admisión de una edificación capaz de albergar los diferentes

servicios necesarios anejos a la zona de huertas prevista.

Bestalde, 2016.ko abenduaren 26an Ingurumen - Ebaluazio estrategiko sinplifikatua hasi zen, eragindako Administrazio Publikoei eta pertsona interesatuei egin beharreko kontsultak eginez. Espediente zenbakia EAES-025 da.

Con fecha 26 de diciembre de 2016, se inició el procedimiento de evaluación ambiental estratégica simplificada, iniciando la fase de consultas a las Administraciones Públicas afectadas y a las personas afectadas. El expediente es el EAES-025.

Tokiko Gobernu Batzordeak, 2017.ko otsailaren 21ean honako erabaki hau hartu zuen:

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 21 de febrero de 2017, adoptó el siguiente acuerdo:

1.- Hasierako onarpena ematea Merkear Modulurako Antolamendu Plan Bereziari.

1º.- Aprobar con carácter inicial el Plan Especial de Ordenación en el “Módulo Merkear” del Parque de Lau-Haizeta.

Behin betiko onarpenari begira, testu berri bat ekarriko da, espedientean dauden txosten guztiek esandakoa jasoko duena.

De cara a la aprobación definitiva deberá de aportarse un nuevo texto que recoja las determinaciones de los informes obrantes en el expediente.

2.- Hogei egunean jendaurrera aterata edukitzea espedientea.

2º.- Someter el expediente al trámite de información pública durante el plazo de veinte días.

3.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 97.4. artikuluan xedatutakoaren arabera, espedientea Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostenaren menpe jartzea.

3º.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 97.4 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, someter el expediente a informe de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.

4.- 2006/2 hirigintza eta Lurzoruari buruzko Legearen 28. artikuluaren arabera Gipuzkoako Foru Aldundia interes publikoari dagokion izapidea bete beharko da.

4º.- De conformidad con el artículo 28 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo deberá de tramitarse la declaración de interés público ante la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Jendaurrean egondako epean, 2017.ko martxoaren 22an, Bera Bera RT izen eta ordezkaritzan Fernando Diez Mintegik alegazio bat aurkezten du. Klubak kirol jarduera berriak ezartzeko aukera ezberdin batzuk aztertu dituela azpimarratzen du, eta Merkear Moduluko ekimenean aukera bat ikusten dute,

Durante la fase de exposición pública, el 22 de marzo de 2017, se presenta una alegación por parte de Fernando Diez Mintegui, en nombre y representación de Bera Bera RT. Señala que el club lleva un tiempo estudiando diversas posibilidades para la implantación de nuevas actividades deportivas, y ven la iniciativa en el

bere ustetan bertan bi kirol zelai handi sartu daitezkelako.

módulo Merkear como una oportunidad ya que a su juicio en el ámbito podían caber dos campos deportivos de gran dimensión.

2018.ko martxoaren 7.ko alegazioei buruzko idatzitako txosten juridikoan, alegazioak ez onartzea proposatzen da, hirigintza edukia ez dutelako.

En informe jurídico a las alegaciones de fecha 7 de marzo de 2018 se propone la desestimación de las mismas, ya que adolecen de contenido urbanístico.

EAES-025 Ingurumen Ebaluazio Estrategiko Simplifikatuari dagokion prozeduran, 2017.ko martxoaren 29an Plan Bereziaren Ingurumen txosten estrategikoa idatziz ebazpena luzatzen da, bertan esaten da Plan Bereziak ez duela eragin garrantzitsurik izango ingurumenean eta, beraz, ez da ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntik egin behar. Aipatuko ebazpen hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2017.ko apirilaren 11an.

Así mismo, dentro el procedimiento de evaluación ambiental estratégica simplificada EAES-025, el 29 de marzo de 2017 se dicta resolución por la que se formula el informe ambiental estratégico del Plan Especial, determinando que no se prevé que vaya a producir efectos adversos significativos sobre el medio ambiente y por tanto no debe de someterse a evaluación ambiental estratégica ordinaria. Dicha resolución se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco el 11 de abril de 2017.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak 2017.ko urriaren 4an ospatutako bileran espedienteari aldeko txostena eman zion, baionoURA-Uraren Euskal Agentziak bete beharreko baldintza batzuk ezarri zituen.

Por otra parte la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco en sesión celebrada el 4 de octubre de 2017 informó favorablemente el expediente, pero la Agencia Vasca del Agua -URA impuso una serie de condiciones.

Interes publikoari dagokionez, Gipuzkoako Aldundiko Lurralde Antolaketako Zuzendari Nagusiak, interes publikoko adierazpena beharrezkoa ez dela adierazten du (2018.ko urtarrilaren 2.ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialan argitaratua).

Respecto al interés público, el Director General de Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa resuelve que no resulta exigible la declaración de interés público (publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 2 de enero de 2018).

2017.ko ekainaren 28an, 3709 sarrera erregistroarekin, behin betiko onarpenerako Testu Bateratua aurkezten da. Aipatuko testuak honako txosten hauek ditu:

El 28 de junio de 2017, con registro de entrada n.º 3709, se presenta el Texto Refundido para su aprobación definitiva. Dicho Texto cuenta con los siguientes informes:

*Txosten juridikoa: 2018/3/7.

*Informe jurídico: 7/3/2018.

*Txosten ekonomikoa: 2018/2/8.

*Informe económico: 8/2/2018.

*Arkitektura txostena: 2018/2/22. Zuzenketak

*Informe arquitectura: 22/2/2018. Solicita

eskatzen ditu.

2018.ko martxoaren 19an Planaren idazleak eskatutako dokumentazio osagarria aurkezten du eta data berdinan, Jarduera Integratuen 2 arkitektuak azkeneko aldeko txostena idazten du.

Bukatzeko, espedienteak nahitaezkoak diren txosten sektorial guztiak ditu. Haien artean bereziki, URA-ek ente kudeatzailearen txostena (Añarbeko Urak-eko otsailaren 28.ko txostena).

Nekazaritza arloko Foru Organoak txostena ez idazteari dagokionez, 2018.ko martxoaren 7.ko txosten juridikoan espedientearekin aurrera jarraitzeko aukera justifikatzen da.

Aurrekoagatik guztiagatik, eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko (7/1985eko apirilaren 2koa 123 i) artikuluarekin jasotakoarekin bat, Donostiako Udalbatzak

E R A B A K I  D U

1.- Bera Bera RT izen eta ordezkaritzan Fernando Diez Minteguik aurkeztutako alegazioa ez onartzea.

2.- Behin betiko onarpena ematea Merkear Modulurako Antolamendu Plan Bereziari 2018.ko martxoaren 19an aurkeztutako dokumentazio osagarria barneratuz.

3.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 89. artikuluak agintzen duena aintzakotzat hartu eta Planaren Hirigintza Arauak argitaratzea.

Udalbatzarrak onar dezan proposatua, Donostian, 2018ko martxoaren 21an.

subsanaciones.

El 19 de marzo de 2018 la redactora del Plan entrega la documentación complementaria requerida, y en la misma fecha, la arquitecto de la Unidad 2 de Actuaciones Integradas redacta informe final favorable.

Para finalizar, el expediente cuenta con todos los informes sectoriales necesarios. Destacar el informe del ente gestor solicitado por URA (informe de Aguas del Añarde de 28 de febrero de 2018).

Respecto a la no emisión del informe del Órgano Foral en materia agraria, el informe jurídico de fecha 7 de marzo de 2018 justifica que se pueda continuar con la tramitación del expediente.

Visto cuanto antecede y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 123 i) de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, el Pleno del Ayuntamiento San Sebastián

A C U E R D A

1.- Desestimar la alegación presentada por Fernando Diez Mintegui, en nombre y representación de Bera Bera RT

2º.- Aprobar con carácter definitivo el Plan Especial de Ordenación en el “Módulo Merkear” del Parque de Lau-Haizeta integrando en el documento la documentación complementaria de fecha 19 de marzo de 2018.

3.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 89 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, proceder a la publicación de las Normas Urbanísticas del Plan.

Lo proponen para su adopción por el Pleno Municipal en San Sebastián a 21 de marzo de 2018

HIRIGINTZAKO ANTOLAMENDU, EXEKUZIOKO ETA BIRGAIKUNTZA ZERBITZU BURUA / EL JEFE DEL SERVICIO JURÍDICO ADMINISTRATIVO DE ORDENACIÓN, EJECUCIÓN Y REHABILITACIÓN
Izpta. / Fdo.: Jon Mikel Garagarza Roteta

HIRIGINTZA JASANGARRIRAKO ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE URBANISMO SOSTENIBLE
Sin. / Fdo.: Juan Carlos Cuevas Argandoña

HIRIGINTZA SOSTENGARRIRAKO, ETXEBIZITZAKO ETA HIRI PROIEKTUETAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA
EL CONCEJAL DELEGADO DE URBANISMO SOSTENIBLE, VIVIENDA Y PROYECTOS DE CIUDAD
Sin. / Fdo.: Enrique Ramos Vispo".

Eztabaida hasita, Enrique Ramos Vispo jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Miren Albistur Garmendia andreak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Enrique Ramos Vispo, D. Loïc Alejandro, D.ª Miren Albistur Garmendia, D. Ricardo Burutaran Ferré, D. Ernesto Gasco Gonzalo y D. Martín Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**9. Behin betiko onarpena ematea "Lazkano AY.07" esparruko "g.00.1 osasun ekipamendua" lursailaren hirigintza antolatzeko plan bereziaren aldaketari.**

"AY.07 LAZKANO" ESPARRUKO "g.00.1 OSASUN EKIPAMENDUA" LURSAILAREN HIRIGINTZA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIAREN ALDAKETARI BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA.

**9. Aprobación definitiva de la Modificación del Plan Especial de Ordenación Urbana de la parcela "g.00.1 Equipamiento Sanitario" en el ámbito AY.07 Lazkano.**

"APROBACIÓN DEFINITIVA DE LA MODIFICACIÓN DEL PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN URBANA DE LA PARCELA "g.00.1 EQUIPAMIENTO SANITARIO" EN EL ÁMBITO AY.07 LAZKANO.

Udalak berak sustatu eta Hirigintza Zuzendaritzako Zerbitzu Teknikoek idatzi, eta "AY.07 Lazkano eremuko g.00.1 osasun ekipamendutarako lursailaren hirigintza antolatzeko plan bereziaren aldaketa" aurkeztu dute, egin behar dituen izapideak egin eta onartzeko.

Promovido por este Ayuntamiento y redactado por los Servicios Técnicos de la Dirección de Urbanismo Sostenible, se presenta para su tramitación y aprobación la "Modificación Puntual del Plan Especial de Ordenación Urbana de la parcela "g.00.1 Equipamiento Sanitario" en el ámbito AY.07 Lazkano.

Hirigintza dokumentu horren helburua Udalbatzak 2016ko maiatzaren 26an izan zuen osoko bileran behin betiko onartutako "AY.07 Lazkano eremuko g.00.1 osasun ekipamendutarako lursailaren hirigintza antolatzeko plan bereziaren alderdi hauek aldatzea da:

El objeto del documento urbanístico es la modificación del Plan Especial de Ordenación Urbana para la ordenación de la parcela "g.00.1 Equipamiento Sanitario" en el ámbito AY.07 Lazkano, aprobado definitivamente por acuerdo del Ayuntamiento Pleno de 26 de mayo de 2016, en los aspectos siguientes:

a) g.00.1 lursailari izendatutako eraikigarritasun fisikoa handitzea, berezko erabilera nagusiak (sanitate ekipamendu komunitario publikoa) eraikineko edozein solairutan lasai jartzeko bidea izateko, eraikinarentzat jarrita den bilgarri gehienezkoaren barruan, betiere.

a) El incremento de la edificabilidad física asignada a la parcela g.00.1, de manera que los usos característicos principales (equipamiento comunitario, sanitario, público) se puedan disponer con absoluta libertad en cualquiera de las plantas del edificio, dentro de la envolvente máxima establecida.

b) Aiete eta Pio Baroja pasealekuetara ematen duten fatxadetako hegalkinen erregulazioa doitzea, gune publikoan estalki batzuk jartzeko modua izan dadin, eraikineko sarrerak babestuta izateko.

b) Reajuste de la regulación de vuelos en las fachadas de los Paseos de Aiete y Pío Barola, para posibilitar la disposición de marquesinas sobre espacio público, para guarecer los accesos al edificio.

c) Bizikletak aparkatzeko toki batzuk jarri beharra kentzea: eraikina izango den tokian izango delako, izango duen izaera izango duelako eta garraio publikoa izango delako.

c) La eliminación de la dotación de plazas de aparcamiento de bicicletas por razones de ubicación del edificio, carácter del mismo y servicio de transporte público disponible.

Aldaketa horiek OSAKIDETZAk hala eskatu dituelako planteatu dira, Aieteteko osasun zentro / anbulatorio berriarentzat aurreikusitako behar programa aurrera eraman ahal izateko.

Las indicadas modificaciones se plantean a instancia de OSAKIDETZA, con el fin de que se pueda desarrollar el programa de necesidades previsto para el nuevo Centro de Salud / Ambulatorio de Aiete.

Tokiko Gobernu Batzordeak, 2018ko urtarrilaren 30an egindako bileran, honako erabaki hau hartu zuen:

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 30 de enero de 2018, adoptó el siguiente acuerdo:

1.- Hasierako onarpena ematea “AY.07 Lazkano” esparruko “g.00.1 osasun ekipamendua” lursaila antolatzeko hiri antolamenduko plan berezia aldatzeari.

1º.- Aprobar con carácter inicial la “Modificación del Plan Especial de Ordenación Urbana de la parcela g.00.1 Equipamiento Sanitario en el Ámbito AY.07 Lazkano”.

2.- Hogei egunean jendaurrera aterata edukitzea espedientea.

2º.-Someter el expediente al trámite de información pública durante el plazo de veinte días.

Jendaurrean egondako epean ez dira alegaziorik aurkeztu, beraz hasiera batean onartutako dokumentua egokitzat jotzen da.

Durante el plazo de exposición pública no se han presentado alegaciones por lo que el documento aprobado inicialmente se estima correcto.

Aurrekoagatik guztiagatik, eta Toki Araubidearen Oinarrien gaineko 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 123 artikuluak agintzen duena aintzakotzat hartuta, Donostiako Udalbatzak

Visto cuanto antecede y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 123 de la ley 7/85 de 2 de Abril, reguladora de las Bases del régimen Local, el Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián

E R A B A K I  D U

A C U E R D A

1.- Behin betiko onarpena ematea “AY.07 Lazkano” esparruko “g.00.1 osasun ekipamendua” lursaila antolatzeko hiri antolamenduko plan bereziaren aldatzeari.

1º.- Aprobar definitivamente la “Modificación del Plan Especial de Ordenación Urbana de la parcela g.00.1 Equipamiento Sanitario en el Ámbito AY.07 Lazkano”.

2.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 89. artikuluak agintzen duena aintzakotzat hartu eta Planaren Hirigintza Arauak argitaratzea.

2º.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 89 de la ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, proceder a la publicación de las Normas Urbanísticas del plan.

Udalbatzak onar dezan proposatua, Donostian, 2018ko martxoaren 12an.

Lo proponen para su adopción por el Pleno en San Sebastián a 12 de marzo de 2018

HIRIGINTZA JASANGARRIRAKO ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE URBANISMO SOSTENIBLE
Sin. / Fdo.: Juan Carlos Cuevas Argandoña

HIRIGINTZA SOSTENGARRIRAKO, ETXEBIZITZAKO ETA HIRI PROIEKTUETAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA
EL CONCEJAL DELEGADO DE URBANISMO SOSTENIBLE, VIVIENDA Y PROYECTOS DE CIUDAD
Sin. / Fdo.: Enrique Ramos Vispo”.

Eztabaida hasita, Enrique Ramos Vispo jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Miren Albistur Garmendia andreak, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Enrique Ramos Vispo, D. Loïc Alejandro, D.ª Miren Albistur Garmendia, D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D. Ernesto Gasco Gonzalo y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

---------------

**OGASUNEKO BATZORDEA**

**COMISIÓN DE HACIENDA**

**10. Arau-proposamen bat onartzeko ekimena, PP taldeak aurkeztua, ibilgailuak aparkatzeagatiko tasak arautzeko zerga-ordenantza aldatzekoa.**

**10. Iniciativa de proposición normativa del Grupo PP para modificar la ordenanza fiscal reguladora de las tasas por el estacionamiento de vehículos.**

“Miren Albistur Garmendiak, Talde Popularraren bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 90. eta 91. artikuluekin bat etorriz, ARAU PROPOSAMEN HAU AURKEZTEN DU IBILGAILUAK APARKATZEKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ZERGA ORDENANTZA ALDATZEKO.

“Miren AlbisturGarmendia, portavoz del Grupo Municipal Popular, al amparo de los artículos 90 y 91 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INICIATIVA DE PROPOSICIÓN NORMATIVA para modificar A LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LAS TASAS POR EL ESTACIONAMIENTO DE VEHÍCULOS.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Mugikortasunari dagokionez, beharrezkoa da

En relación a la movilidad, es necesario poner

gure kaleetan ahalik eta kutsadura gutxien igorriko duten ibilgailuak sortzeko teknologiak sustatzea gunetzat hartzea. Horrelako ibilgailuei esker, etorkizun hurbil samarrean, ibilgailuek igorritako kutsadura gutxitu ahal izango da neurri handi batean eta, horren ondorioz, gure hiriak aldatu egingo dira.

el foco en el fomento de aquellas tecnologías que permitan que los vehículos que circulan por nuestras ciudades emitan la menor contaminación posible. El uso de estos vehículos va a permitir, en un horizonte no muy lejano, minorizar de manera importante gran parte de la polución emitida por los vehículos, lo que va cambiar nuestras ciudades.

Ildo horretan, gero eta hiritar gehiagok erosten dituzte gutxiago kutsatzen duten ibilgailuak, etorkizunari aurre hartzeko, nahiz eta gure hirian ez dugun egiazko azpiegiturarik gasolioz edo gasolinaz ibiltzen diren ibilgailuek duten bezala.

En este sentido, son cada día más los ciudadanos que deciden adquirir un vehículos menos contaminantes para adelantarse al futuro, aunque no dispongamos, aún, en nuestra ciudad de una verdadera infraestructura como la que disponen los vehículos que se mueven a gasolina o diésel.

Hala ere, errealitate berri hori hiritarren ohituretan egiaztatzen ari da, eta erakundeek emandako arauetan ere islatzen hasi dira. Testuinguru horretan, hiri askotan, fenomeno hori arautzen ari dira eta beren ordenantzetan bildu; gure hirian ere, hala gertatzen da; izan ere, Ibilgailuen gaineko Zergaren 10. artikuluan, zenbait hobari ematen dira gutxien kutsatzen duten motorrekin funtzionatzen duten ibilgailuetarako (ikus 10.3 artikulua).

Sin embargo, esta nueva realidad se va confirmando en los hábitos de la ciudadanía, que va teniendo reflejo en la normativa emanada de las diversas instituciones. En este contexto, muchas ciudades están regulando este fenómeno, y contemplándolo en sus ordenanzas, como es el caso de nuestra ciudad, que en el Impuesto Sobre Vehículos recoge, en su artículo 10, una serie de bonificaciones para aquellos vehículos que funcionen con motores menos contaminantes (véase el artículo 10.3).

Horri dagokionez, uste dugu zerga pizgarri horrek kutsadura gutxiago sortzen duten ibilgailuak erostea bultzatuko duela, eta, hala, horrelako ibilgailuen gidariei antzeko “hobari” bat ezarri behar zaiela gure hiriko bide publikoan aparkatzeagatik ordaintzen duten tasan. Eta beste hiri batzuetan ezartzen ari diren neurriekin bat etorrita.

En este sentido, creemos conveniente acompañar este estímulo fiscal a la adquisición de vehículos con tecnologías menos contaminantes con la implementación de una “bonificación” similar en tasa que pagan los conductores de estos vehículos por estacionar en las vías públicas de nuestra ciudad. Y en línea con las medidas que se están tomando a cabo en otras ciudades.

Ibilgailuaren gidariak ordaintzen duen tasaren TARIFA konpentsatzeko, sortutako kutsaduraren arabera Trafiko Zuzendaritza Nagusiak automobilei buruz egiten duen

Para llegar a esta compensación en la TARIFA de la tasa que paga el conductor del vehículo, proponemos que nos rijamos por la clasificación que realiza la Dirección General

sailkapenari jarraitzea proposatzen dugu. Hala, lau kategoria bereiziko dira: Zero igorpen, Eko, C eta B.

de Tráfico sobre los coches según su contaminación. Así se distinguen cuatro categorías: Cero emisiones, Eco, C y B.

Talde Popularrak ERABAKI hau hartzea proposatzen dio Udalbatzari:

El Grupo Popular propone al Ayuntamiento Pleno la adopción del siguiente ACUERDO:

- Bidezkotzat jotzea Trakzio Mekanikozko Ibilgailuak Udal Bide Publikoetan Aparkatzeagatiko Tasak arautzen dituen Zerga Ordenantza aldatua

- Entender procedente la modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora de lasTasas por el Estacionamiento de Vehículos.

Donostia, 2018ko martxoaren 7a

En Donostia /San Sebastián, a 7 de Marzo de 2018

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea".

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular".

Eztabaida hasita, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Amaia Martin Garin andreak, Ayem Oskoz Urrutikoetxea jaunak eta Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. José María Murguiondo Casal, D.ª Amaia Martín Garín, D. Ayem Oskoz Urrutikoetxea y D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 24 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 24 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

## KONTRATAZIOA KONTROLATZEKO ETA JAKITUN EGOTEKO BATZORDE BEREZIA

## COMISIÓN ESPECIAL DE CONTROL Y SEGUIMIENTO DE LA CONTRATACIÓN

**11. 2017ko ekitaldiari dagokion oroitidazkiaren berri ematea.**

"UDALBATZARI

Udalbatzaren Organo Araudiko IX. Tituluak eta, bereziki, VI. Kapituluak arautzen dute Kontratazioa Kontrolatzeko eta Jakitun Egoteko Batzorde Berezia.

Batzorde berezi hori dugu udal Administrazio osoaren kontratu bidezko jarduera kontrolatzeko eta zaintzeko organoa, hau da, barne hartzen ditu Udala bera, erakunde autonomoak, udalaren enpresa erakunde guztiak eta osorik udalarenak diren baltzu publikoak, eta helburu du kontratazioan publizitatea, lehia mugagabea, objektibotasuna, gardentasuna eta eraginkortasuna bermatzea.

Batzordeak Udalbatzari jardueren urteko Oroitidaztia bidali behar dio.

Batzordeak 2008ko otsailaren 5eko bilkuran legealdi osorako funtzionamendu arauak onartu zituen, eta urteko oroitidazkiari dagokionez, edukia, aldizkakotasuna, lanketa eta izapidetzea.

Aipatu arauen ondorioz, batzordeburuak oroitidazkia onarkizun bidaliko dio Batzordeari dokumentuak jasotzen duenaren hurrengo ekitaldiko lehen hiruhilekoan.

Batzordeak onarturiko oroitidazkiaren jakitun jarriko dute Donostiako Gobernu Batzarra.

Oroitidazkia; eta halakorik egonez gero, gogoetak eta hobetze proposamenak; Udalbatzari bidaliko diote, jakitun jartzeko asmoz.

**11. Dar cuenta de la Memoria correspondiente al ejercicio 2017.**

"AL AYUNTAMIENTO PLENO

El Reglamento Orgánico del Pleno regula en su Titulo IX las Comisiones del Pleno y de modo especifico en el Capítulo VI la Comisión Especial de Control y Seguimiento de la Contratación.

La Comisión Especial es el Órgano de control y vigilancia de la actividad contractual de toda la Administración Municipal, es decir, Ayuntamiento, Organismos Autónomos, Entidades Públicas Empresariales y Sociedades Públicas y tiene por finalidad garantizar la publicidad, libre concurrencia, objetividad, transparencia y eficacia de la contratación.

La Comisión debe elevar al Ayuntamiento Pleno una Memoria anual de sus actividades.

La Comisión, en sesión celebrada el 5 de febrero de 2008, aprobó sus Normas de Funcionamiento para toda la Legislatura y en relación con la Memoria Anual su contenido, periodicidad, elaboración y tramitación.

De conformidad con dichas Normas, el Presidente elevará la Memoria, para su aprobación, a la Comisión dentro del primer trimestre del ejercicio siguiente al que se refiere.

De la Memoria aprobada por la Comisión se dará cuenta a la Junta de Gobierno Local.

La Memoria conteniendo, en su caso, consideraciones y propuestas de mejora, se elevará al Ayuntamiento Pleno para su conocimiento.

Batzordeak 2018ko martxoaren 26ko bilkuran 2017ko Ekitaldiko Oroitidazkia onartu zuen, osagai dituela aipatu ekitaldian kontrolaturiko kontratuen analisia.

La Comisión, en sesión celebrada el día 26 de marzo de 2018, ha aprobado la Memoria correspondiente al Ejercicio 2017 comprensiva del análisis de los contratos objeto de control del citado ejercicio.

Aipatu oroitidazkiaren jakitun jarri dute Donostiako Gobernu Batzarra 2018ko Apirilaren 10ean izandako bilkuran.

De dicha Memoria ha tenido conocimiento la Junta de Gobierno Local en su sesión celebrada con fecha 10 de abril de 2018.

Horiek horrela direla,

En base a lo expuesto,

Donostiako Udalbatza 2017ko Ekitaldiko Oroitidazkiaren jakitun dago; Udalak erakunde autonomoek, enpresa erakunde publikoek eratzen duten Tokiko Sektorearen Kontratazioa Kontrolatzeko eta Jakitun Egoteko Donostiako Udalaren Batzorde Bereziaren eginak jasotzen dituena”.

El Excelentísimo Ayuntamiento Pleno toma conocimiento de la Memoria correspondiente al ejercicio 2017 en la que se recogen las actuaciones realizadas por la Comisión Especial de Control y Seguimiento de la Contratación del Sector Público Local del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, integrado por el propio Ayuntamiento, sus Organismos Autónomos, sus Entidades Públicas Empresariales y las Sociedades Públicas Municipales”.

Donostian, 2018ko apirilaren 11an

ZPTA./FDO.: CHARO GARCIA
Kontu Hartzailetzako Zuzendaritzari laguntzeko teknikaria/
Técnico Apoyo Dirección Intervención

SIN.: RICARDO BURUTARAN
Kontratazioa Kontrolatzeko eta Jakitun Egoteko Batzorde Bereziaren Burua.
Presidente de la Comisión Especial de Control y Seguimiento de la Contratación”.

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak, Ane Oyarbide Ochoa andreak eta Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Ricardo Burutaran Ferré, D. José Luis Arrúe Pintó, D.ª Ane Oyarbide Ochoa y D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

**JAKINEAN.**

**ENTERADO.**

---------------

**IRADOKIZUN ETA ERREKLAMAZIO BATZORDE BEREZIA**

**COMISIÓN ESPECIAL DE SUGERENCIAS Y RECLAMACIONES**

**12. 2017ko Erreklamazio Batzordearen txostenaren berri ematea.**

“UDALBATZARI

Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Bereziaren urteko txostenaren berri ematea.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 132. artikuluak nahiz Udalbatzaren Organo Araudiko 141. eta 142. artikuluek agintzen duten bezala, honekin batera doa Iradokizun eta Erreklamazio Batzordearen txostena, 2017koa, Udalbatzari aurkeztu eta haren jakinaren gainean jartzeko.

Donostian, 2018ko apirilaren 10en.

**12. Dar cuenta del Informe correspondiente al año 2017.**

“AL AYUNTAMIENTO PLENO

Dando cuenta del Informe Anual de la Comisión de Sugerencias y Reclamaciones.

En cumplimiento de lo previsto en el artículo 132 de la Ley 7/1985, reguladora de las Bases de Régimen Local y en los artículos 141 y 142 del Reglamento Orgánico de Pleno, adjunto remito el Informe de la Comisión de Sugerencias y Reclamaciones correspondiente al año 2017, para su elevación al Pleno de la Corporación, a fin de dar cuenta del mismo.

En San Sebastián, a 10 de abril de 2018.

Batzordeburua /
La Presidenta
María JESUS ZELAIA EGIGUREN”.

Eztabaida hasita, Maria Jesus Celaya Egiguren andreak, Miren Albistur Garmendia andreak, Olaia Duarte Lopez andreak, Alfonso Gurpegui Ruiz jaunak eta Juan Ramon Viles Mitxelena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª María Jesús Celaya Egiguren, Dª. Miren Albistur Garmendia, D.ª Olaia Duarte López, D. Alfonso Gurpegui Ruiz y D. Juan Ramón Viles Mitxelena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

**JAKINEAN.**

**ENTERADO.**

---------------

**II**

**INFORMAZIO, SUSTAPEN ETA KONTROLA**

**MOZIOAK**

**II.1**

**KONTROL MOZIOAK**

**II.1.1. Kontrol mozioa, EH BILDU, PP eta IRABAZI DONOSTIA taldeek aurkeztua, hirigintza espedienteetako segurtasun juridikoa dela eta.**

"EH Bildu udal taldeko bozeramaile Amaia Almirall Lopez de Luzuriagak, Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak eta Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Erregelamendu Organikoaren 98. artikulua oinarri, MOZIO hau aurkezten dute Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko apirilaren 16an Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean hirigintza espedienteetako segurtasun juridikoari buruz egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Bozeramaileen Batzordearen martxoaren 8ko saioan, EH Bildu, PP eta Irabazi Donostia taldeek hirigintza espedienteen segurtasun juridikoari lotutako arazoa jarri genuen mahai gainean.

**II**

**INFORMACIÓN, IMPULSO Y CONTROL**

**MOCIONES**

**II.1**

**MOCIONES DE CONTROL**

**II.1.1. Moción de control conjunta, presentada por los Grupos EH BILDU, PP e IRABAZI DONOSTIA, sobre seguridad jurídica en expedientes urbanísticos.**

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, portavoz del Grupo Municipal EH Bildu, Miren Albistur Garmendia, portavoz del Grupo Popular y Loïc Alejandro, concejal del Grupo Irabazi Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN a consecuencia de la interpelación substanciada ante la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio, celebrada el día 16 de Abril de 2018, sobre seguridad jurídica en expedientes urbanísticos.

JUSTIFICACIÓN

En la sesión de Junta de Portavoces del 8 de marzo, los grupos EH Bildu, PP e Irabazi Donostia pusimos sobre la mesa la problemática de la seguridad jurídica de los expedientes urbanísticos.

Hiru taldeoi duela hilabete batzuk sortu zitzaigun gai horri buruzko kezka. Behin baino gehiagotan, azken momentuan, udalbatza hasi aurretik edo hasitakoan, kanpoan utzi behar izan dira eguneko gai zerrendan onarpenerako sartutako hirigintza kontuak.

La preocupación de los tres grupos por este tema surgió hace varios meses, llegándose incluso a tener que retirarse en varias ocasiones en el último momento, antes o en el propio Pleno, asuntos urbanísticos que se habían incluido en el orden del día para su aprobación.

Aurretik, hiru talde politikook jakin nahi izan genuen ea ingurumen ebaluazio estrategikoa beharrezkoa zen aipatutako gaien gaineko segurtasun juridikoa bermatzeko (idazkariaren txostena eskatuta edo batzordeko eztabaiden bidez).

Anteriormente, para estos asuntos urbanísticos, mediante petición de informe del Secretario o debates en comisión, los 3 grupos políticos quisieron aclarar si la evaluación ambiental estratégica era necesaria para garantizar la seguridad jurídica relativa a los asuntos mencionados.

Bozemaileen Batzordeko eztabaidan ondorioztatu genuen, gaur egungo jurisprudentzia irizpideak direla eta, zenbait espedientetan dokumentuak sartzeari buruzko irizpide ezberdinak dituztela Hirigintza Departamentuko teknikari juridiko batzuek eta Udaleko idazkariak.

Del debate en Junta de Portavoces pudimos concluir que existe una diferencia de criterio entre algunos técnicos jurídicos del Departamento de Urbanismo y el Secretario del Ayuntamiento, en cuanto a la necesidad de incorporar documentos a ciertos expedientes dados los criterios jurisprudenciales actuales.

Iruditzen zaigu, hirigintza espediente bat onartu ahal izateko, beharrezkoa dela hark juridikoki ahalik eta segurtasun handiena izatea, eta kontuan hartu behar dira aipatutako jurisprudentzia irizpideak. Hori dela eta, hiru taldeok Bozeramaileen Batzordean eskatu genuen, hirigintza kontuak Udalbatzan onartu behar direnean, Gobernuak sistematikoki eskatu behar duela idazkariaren txostena edo ingurumen ebaluazioa tramitatu behar duela. Alkateak eta zinegotzi ordezkariak ezetz esan zuten.

Consideramos que para aprobar un expediente urbanístico es necesario alcanzar la mayor seguridad jurídica del mismo y tener en cuenta los mencionados criterios jurisprudenciales. Por ese motivo, los tres grupos pedimos en Junta de Portavoces que el Gobierno pida sistemáticamente un informe del Secretario, o tramite la evaluación ambiental cuando asuntos urbanísticos van para su aprobación a Pleno. La respuesta del alcalde y del concejal delegado fueron negativas.

Batzordean, Hirigintzako zinegotzi ordezkariak erantzun zuen gobernu taldeak baduela zilegitasuna espedienteak berak egoki ikusten dituen moduan onartzeko.

En comisión, la respuesta obtenida por el concejal delegado de Urbanismo fue que el equipo de gobierno está legitimado para aprobar los expedientes como ellos consideren oportunos.

Horrenbestez, EH Bilduk, Talde Popularrak eta Irabazi Donostia udal taldeak hau aurkezten

Es por lo que el Grupo EH Bildu, Grupo Popular y Grupo Irabazi Donostia presentan la

dute:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak alkateari eta gobernu taldeari eskatzen diote, Udalbatzak behin betiko onartu beharreko hirigintza proiektuak daudenean, eta haien segurtasun juridiko handiagoa bermatzeko zenbait dokumentu sartzeko premia dagoenean, jurisprudentzia irizpideekin ahalik eta gehien bat egiten duen irizpide tekniko-juridikoa erabil dezala.

Donostian, 2018ko apirilaren 18an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu taldearen bozeramailea

Miren Albistur Garmendia
Talde Popularraren bozeramailea

Loïc Alejandro
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia".

siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al alcalde y al equipo de gobierno a atender al criterio técnico-jurídico más acorde con los criterios jurisprudenciales, en cuanto a la necesidad de incluir ciertos documentos para garantizar la mayor seguridad jurídica, a la hora de conformar los expedientes urbanísticos que se elevan a Pleno para su aprobación definitiva.

Donostia, a 18 de abril de 2018

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
Portavoz del grupo EH Bildu

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular

Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Miren Albistur Garmendia andreak, Loïc Alejandro jaunak, Enrique Ramos Vispo jaunak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Ricardo Burutaran Ferré, D.ª Miren Albistur Garmendia, D. Loïc Alejandro, D. Enrique Ramos Vispo y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.1.2. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, San Antonio galdatzari buruzkoa.**

“Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluan oinarrituta, KONTROL MOZIO hau aurkezten du. Mozioa hil honetako GUNE PUBLIKOEN Batzordean SAN ANTONIO GALDATZARI buruz egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

San Antonio galtzadak Herrera lotzen du izen bereko kalearen goiko zatiarekin, Montesol deritzon etxe taldearekin eta Intxaurrondo auzoko beste gune batzuekin. Gaur-gaurkoz, galtzada hori oztopo bat da jende askorentzat, dela duen malda handiagatik, dela duen egoeraren ondorioz.

Herrera auzoak garraio publiko bidezko oso konexio ona du ekialderantz eta mendebalderantz, Renfeko eta Euskotreneko geltokiak dituelako, eta Dbus eta Ekialdebus autobus lineak ere igarotzen direlako. Hori dela eta, San Antonio galtzadaren irisgarritasuna hobetzeak indar bikoitza izango luke; alde batetik, oinezkoen mugikortasuna hobetuko luke, eta bestetik, aurrez aipatu ditugun guneetan bizi den jende askorentzat Herreran dagoen garraio publikoko sare zabala erabiltzea erraztuko litzateke. Horrez gain, inguru hartako merkataritza biziberritzen ere lagunduko luke, goiko aldean bizi direnei iristeko erraztasuna emango litzaiekeelako, han dendarik ez dagoenez gero.

Izan ere, EAJ-PSEren gobernatzeko

**II.1.2. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, sobre Calzada de San Antonio.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la Comisión de ESPACIO PÚBLICO del presente mes, en relación con la CALZADA DE SAN ANTONIO.

JUSTIFICACIÓN

La calzada de San Antonio conecta Herrera con la parte alta de la calle del mismo nombre, así como con la urbanización denominada Montesol, y otras zonas del barrio de Intxaurrondo. Esta calzada es hoy por un hoy una barrera para muchas personas debido tanto a la importante pendiente que tiene la misma, como al estado en que se encuentra.

El barrio de Herrera cuenta con una excelente conexión de transporte público en dirección este- oeste, ya que dispone de estaciones de Renfe, Euskotren y las líneas de autobuses de Dbus y Ekialdebus. Por lo tanto, mejorar la accesibilidad de la calzada de San Antonio tendría un doble efecto, ya que por un lado, mejoraría la movilidad peatonal, y por otro, propiciaría que muchas personas que viven en las zonas citadas anteriormente tuvieran acceso a la amplía red de transporte público concentrada en Herrera. Además, podría contribuir a revitalizar los comercios de la zona, ya que facilitaría el acceso a los mismos a quienes viven en la parte alta, ya que ahí no los hay.

De hecho, incluso el programa de gobierno

programako Mugikortasuna eta Garraioa atalean ere "Oinezkoentzat hiria irabaztea" barne hartzen da: “Herreran, Bidebietan, Gaiztarroren eta San Antonio auzoaren arteko oinezkoen loturei dagokienez lan egingo dugu”. Hau da, tokiko gobernuak ere modu esplizituan aitortzen du eremu horrek duen hobekuntza beharra.

Auzi hori Udalbatzaren batzordeetara eraman genuenean, zinegotzi ordezkariak erantzun zigun ez zegoela gai horri zegokion berririk; udal gobernuak bere gobernatzeko programa betetzeko asmoa duela, baina ez dagoela horri buruzko proiekturik, eta lizitazio fasean ere ez dagoela.

Agintean hiru urte igarota, uste dugu ordua dela udal gobernuak bere programa betetzeko proposamen bat aurkezteko, eta Herreraren eta San Antonio auzoaren arteko oinezkoen loturak errazteko, inguru horretako bizilagunek aspalditik aldarrikatzen duten moduan.

Aurrez aurkeztutako guztia dela eta, honako kontrol mozioa aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio aurkez dezala Herreraren eta San Antonio auzoaren arteko oinezkoen loturak hobetzeko proposamen bat.

Donostia, 2018ko apirilaren 20a

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea”.

PNV-PSE, incluye en el apartado de movilidad y transporte, “Ganar ciudad para los peatones” : “En Herrera, Bidebieta, actuaremos en la conexión peatonal en Gaiztarro y barrio San Antonio”. Es decir, que el gobierno local también reconoce de forma explícita la necesidad de mejora de ese ámbito.

Cuando llevamos esta cuestión a las comisiones de Pleno, la concejala delegada nos respondió que no había novedades al respecto, que el gobierno municipal tiene la intención de cumplir su programa de gobierno pero que no hay proyecto ni está en fase de licitación.

Tras tres años transcurridos de mandato, creemos que es hora de que el gobierno municipal presente su propuesta para cumplir con su propio programa y facilitar la conexión peatonal de Herrera y el barrio de San Antonio, una vieja reivindicación del vecindario de la zona.

Por todo lo anteriormente expuesto, presentamos la siguiente:

MOCION DE CONTROL

1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a presentar una propuesta para mejorar la conexión peatonal entre Herrera y el barrio de San Antonio.

Donostia a 20 de Abril de 2018

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia”.

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Miren Albistur Garmendia andreak, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Amaia Martín Garín, D.ª Miren Albistur Garmendia, D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D. Ernesto Gasco Gonzalo y D.ª Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.1.3. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, Altzako Larreseko ibarra bere onera ekartzeari buruzkoa.**

“Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa hilabete honetako Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Altzako Larreseko ibarra bere onera ekartzeari buruz egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Altza auzoan, bere onera ekarriko da Larreseko ibarra. Amiantoz kutsatutako lurrak aurkitu ziren han. Bere onera ekartzeko proiektua martxoaren 14an aurkeztu zitzaien udal taldeei, Altzako polikiroldegiari buruzko

**II.1.3. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, en relación a la recuperación ambiental de la vaguada de Larres en el barrio de Altza.**

“Loïc Alejandro, Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos de este mes, en relación a la recuperación ambiental de la vaguada de Larres en el barrio de Altza.

JUSTIFICACIÓN

La vaguada de Larres en el barrio de Altza, en la que se detectaron suelos contaminados por amianto, va a ser regenerada. El proyecto de regeneración fue presentado a los grupos municipales en la sesión del 14 de marzo de la

eta amiantoaz kutsatutako lurrei buruzko Batzorde Ez Iraunkorraren saioan.

Aipatutako ibarra bere onera ekartzeari buruzko proiektuari dagokionez, harritu egin gintuen etorkizuneko espazioaren diseinua edo gutxienez hango zenbait elementu auzotarrekin kontrastatu ez izanak, eta hala adierazi genuen Gune Publikoetako Batzordean. Ildo horretatik, Gobernuak proiektu hori gauzatzeko egindako urratsen berri eman zuen: aurrena, kutsatutako lurrak tapatu; ondoren, metro bat lurrekin estali; eta azkenik, tokia lorategiz hornitutako gune bihurtu, haur-jolasen gune bat ere eginez. Horrez gain, jakinarazi zuen tramiteak ahalik eta azkarren egiten saiatu direla, lanek bat etorri behar dutelako haurren eskolako oporrekin.

Era berean, Gobernuak adierazi zuen gunearen diseinua zein izango zen 2017an auzotarrekin egindako bilera ireki batean azaldu zuela.

Auzotar horiek beraiek beren desengainuaren berri eman diote gure taldeari, bilera informatibo hutsa izan zelako, eta ez dutelako aukerarik izan proiektuaren zehaztapenean modu aktiboan parte hartzeko.

Iruditzen zaigu, gobernuaren ustez, aipatutako 2017ko bileran eman zuen informazioa, ibarra bere onera ekartzeko dagoen denbora-tarte laburra eta prozesu parte-hartzaile bat egiteko obligaziorik eza nahiko argudio izan direla aurretik auzotarrekin bildu eta haien iradokizunak eta ekarpenak biltzen ez saiatzeko; baina ez gaude ados.

Hori guztia dela eta, hau aurkezten dugu:

Comisión no Permanente sobre el Polideportivo de Altza y la Presencia de Suelos Contaminados por Amianto.

En relación al proyecto de regeneración citado, tal y como manifestamos en la Comisión de Espacio Público, nos sorprendió que no se hubiera contrastado con el vecindario del barrio el diseño del futuro espacio o por lo menos algunos elementos del mismo. A este respecto, el Gobierno, informó de los pasos que se habían dado para llevar a cabo la ejecución de este proyecto: primero tapar los suelos contaminados, después cubrir con un metro de tierra y, finalmente, convertir el lugar en un espacio ajardinado que incluye una zona de juegos infantiles. También informó de que se ha intentado hacer una tramitación lo más rápida posible, ya que los trabajos deben coincidir con el periodo vacacional escolar.

Igualmente, el Gobierno manifestó que, en una reunión abierta con el vecindario en 2017, se había explicado cuál iba a ser del diseño de esta zona.

Los mismos vecinos han trasladado a nuestro grupo su decepción al constatar que la reunión solo ha sido informativa, y que no han tenido la oportunidad de tener un papel activo en la definición del proyecto.

Entendemos que el gobierno ha considerado que tanto la información que dio en la reunión citada de 2017, como los tiempos ajustados para acometer la regeneración de la vaguada, como la no obligación de realizar un proceso participativo, son argumentos suficientes para no haber hecho alguna reunión preliminar con el vecindario para intentar recabar sugerencias o aportaciones del mismo; algo que no compartimos.

Por todo lo anteriormente expuesto, presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Altzako auzotarrekin bilera bat egiteko eskatzen dio udal Gobernuari, Larreseko ibarra bere onera ekartzeko proiektuari buruz haiek dituzten iradokizunak eta ekarpenak biltzeko eta teknikoki gauzagarriak direnak proiektuan sartzeko.

2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio, hiritarrei irekitako espazio baten proiektua egin behar duenean, proiektuak eragingo dien auzotarrekin gutxienez proiektua aurkezteko eta kontrastatzeko bilera bat egitea aurrez, espazio horren zehaztapenei buruzko iradokizunak biltzeko.

Donostia, 2018ko apirilaren 20an

Sin.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia".

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que convoque al vecindario del barrio de Altza a una reunión para recibir las aportaciones o sugerencias sobre el proyecto de regeneración de la vaguada de Larres, e incorporar las que son técnicamente posibles de realizar.

2. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal, cuando se plantea realizar un proyecto de espacio abierto a la ciudadanía, a organizar por lo menos una reunión preliminar de presentación y contraste con el vecindario afectado, con el fin de recabar sugerencias sobre la definición del espacio proyectado.

Donostia, a 20 de abril de 2018

Fdo. Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak eta Alfonso Gurpegui Ruiz jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Loïc Alejandro, D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga y D. Alfonso Gurpegui Ruiz, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**3. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**

**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) PP.**

**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 9 – (6) EH BILDU, (3) PP.**

**3. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.1.4. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, hiri ekialdeko trafiko arazoei buruzkoa.**

“Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, OSOKO BILKURAN azter dadin. Mozioa hilabete honetako Gune Publikoen (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Batzordean hiri ekialdeko trafiko-arazoei buruz egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Gune Publikoen (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Batzordean, interpelazioa egin genion Mugikortasuneko zinegotzi Arana andreari, hiriaren ekialdean egunero sortzen diren trafiko-pilaketak arintzeko neurriak hartzeari buruz: bai Martuteneko eta Garberako

**II.1.4. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, sobre los problemas de tráfico en el este de la ciudad.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL PARA SU DEBATE EN EL PLENO, sobrela interpelación en comisión de Espacio Público. Obras y Servicios Urbanos de este mes, sobre los problemas de tráfico en el este de la ciudad.

JUSTIFICACIÓN

En la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos interpelamos a la concejala de movilidad, Sra. Arana, sobre la adopción de medidas para paliar la congestión de tráfico que se produce a diario en la zona Este de la ciudad: tanto en la rotonda de Martutene como

biribilguneetan, bai 27. poligonoan. Gaur egungo pilaketez gain, kontuan hartzekoak dira faktore hauek ere: Garbera handitzea aurreikusten da, eta Txomin Enea auzo berria ere garatzen ari da. Horiek, seguru asko, are gehiago okertuko dituzte trafiko-arazoak hiriaren ekialdean.

en la de Garbera y polígono 27. Resulta necesario señalar que a la congestión actual hay que añadir que la previsible ampliación de Garbera, así como el desarrollo del nuevo barrio Txomin Enea, empeorarán previsiblemente los problemas de tráfico en la zona este de la ciudad.

Arana andreak erantzun zuen erakunde arteko batzordeak (besteak beste, hiriko sarrera-irteerak aztertzeko sortuak) lehentasunezko puntu batzuk identifikatu dituela, eta horietan neurriak hartzea beharrezkoa dela. Identifikatutako puntuen artean daude, gaur egun, lehen aipatutakoak. Alabaina, Arana andreak ez du zehaztu zein neurri zehatz jarriko diren martxan edo zerk izango duen lehentasuna. 27. poligonoaren eta Astigarragako biribilgunearen arteko lotura soilik aipatu du. Mugikortasuneko zinegotzi ordezkariaren hitzetan, ibilbide bat identifikatuta dago jada, baina oraindik ez da hitzarmenik sinatu Astigarragako Udalarekin.

La Sra. Arana respondió que la comisión interinstitucional creada para analizar entre otras cuestiones, las entradas y salidas de la ciudad ha identificado unos puntos prioritarios donde se hace necesario actuar, entre los actuales se encuentran aquellos que hemos señalado. No obstante, la Sra. Arana no fijó las actuaciones concretas que se van a poner en marcha o la prioridad de las mismas, más allá de la conexión del Polígono 27 con la rotonda de Astigarraga en la cual según palabras de la concejala delegada ya hay identificado un itinerario, si bien no se ha procedido a la firma del correspondiente convenio con el Ayuntamiento de Astigarraga.

Bestalde, gogoratu behar da etorkizunean ere (adibidez, Martuteneko biribilgunearen kasuan) sinatu beharko direla hitzarmenak eskumenak dituzten beste erakunde batzuekin, esaterako, Foru Aldundiarekin. Guk dakigula, gaur-gaurkoz, hitzarmen horiek ez dira existitzen. Gainera, iruditzen zaigu Foru Aldundiak Martuteneko trafiko-arazoei heltzeko aukera handirik ez dagoela, gaitasun handiko zenbait errepideren komunikazio-lotune bilakatu delako hura.

Por otra parte es necesario recordar que futuras actuaciones, como la rotonda de Martutene necesitaran de la firma de convenios con otras instituciones competentes como la Diputación Foral, convenios que a día de hoy no nos consta que existan. Además consideramos que la probabilidad de que la Diputación Foral vaya a abordar los problemas de tráfico en la rotonda de Martutene se reducen, al haberse convertido ésta en un nudo de comunicación entre distintas carreteras de alta capacidad.

Beraz, iruditzen zaigu, Udal Gobernua ez dela inondik inora behar adina inplikatzen ari aipatutako bi biribilguneetako trafiko-pilaketen arazoak konpontzeko. Izan ere, alde batetik, Garbera handitzeko proiektuari dagokionean, oso eskuzabal jokatu du sustatzailearekin proiektuak edukiko duen eragina saihesteko eskatu beharreko neurrietan; bestalde,

Por lo tanto, consideramos que la implicación del gobierno municipal para resolver los problemas de congestión del tráfico en las dos rotondas mencionadas está resultando del todo insuficiente, ya que por un lado, ha sido muy laxo con el proyecto de ampliación de Garbera a la hora de exigir a la promotora mayores medidas para evitar el impacto que

badirudi ez dela behar adina egiten ari Foru Aldundiak Martuteneko biribilgunea aldatzeko proiektua onartzeko.

tendrá, ni parece que esté haciendo lo suficiente para que la Diputación Foral apruebe un proyecto de modificación de la rotonda de Martutene.

Hori dela eta, honako hau aurkezten dugu:

Por todo ello, presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1.- Donostiako Udalbatzak, gehienez sei hilabeteko epean, hiriaren ekialdeko trafiko-pilaketak konpontzeko mugikortasun-plan bat aurkezteko eskatzen dio Udal Gobernuari.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al gobierno municipal a presentar en el plazo de seis meses un plan de movilidad para solucionar los problemas de congestión de tráfico del este de la ciudad.

2.- Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio Martuteneko biribilgunean aldaketak egiteko beharrezko hitzarmenak sinatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, hiriaren ekialdeko trafiko-arazoak konpondu ahal izateko.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al gobierno municipal a firmar con la Diputación Foral de Gipuzkoa los convenios necesarios para llevar a cabo la reforma de la rotonda de Martutene que permita solucionar los problemas de congestión de tráfico del este de la ciudad.

3.- Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio 27. poligonoa Astigarragako biribilgunearekin lotzeko beharrezko neurriak hartu ahal izateko hitzarmena sinatzeko Astigarragako Udalarekin.

3.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al gobierno municipal a firmar con el Ayuntamiento de Astigarraga el convenio que permita acometer las actuaciones necesarias para conectar el Polígono 27 con la rotonda de Astigarraga.

Donostia, 2018ko apirilaren 20an

Donostia, 20 de abril de 2018

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea".

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavos del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Ayem Oskoz Urrutikoetxea jaunak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Amaia Martín Garín, D. José María Murguiondo Casal, D. Ayem Oskoz Urrutikoetxea y D.ª Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**4. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 4:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**4. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 4:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**4. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 4:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 9 – (6) EH BILDU, (3) PP.**

---------------

**II.1.6. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, Kursaal Biltzar Jauregi eta Auditoriumeko pantailako publizitateari buruzkoa.**

“Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri hartuta, KONTROL MOZIO hau aurkezten du. Mozioa hil honetako Gune Publikoetako (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Batzordean Kursaal Biltzar Jauregi eta Auditoriumeko pantailako publizitateari buruz egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Hilabete honetako Gune Publikoetako (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Batzodean, interpelazio bat egin genion gobernuari, Kursaaleko mendebaldeko pantaila helburu komertzialekin erabiltzeari buruz; izan ere, egiaztatu genuen erabilera hori eman zaiola Moneo jaunak diseinatutako eraikinaren fatxadari.

Batzordean azaldu genuen bezala, eraikinaren mendebaldeko fatxada 1.260 m²-ko publizitate-pantaila erraldoi bilakatu da. Duela urtebete inguru, Kursaaleko administrazio-kontseiluak erabaki hori hartu zuela jakin genuenean, salatu genuen onartezina zela eraikin publiko, enblematiko eta babestu hori munduko pantaila erraldoi handiena bilakatzea, zertarako eta publizitaterako plataforma moduan erabiltzeko. Mozio bat aurkeztu genuen hori saihesten ahalegintzeko, baina ez zuten onartu.

Gure mozioaren eztabaidan, Goia alkate jaunak esan zuen erabat gezurra zela

**II.1.6. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, sobre publicidad en la pantalla del Palacio de Congresos y Auditorio Kursaal.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la Comisión de Espacio Público. Obras y Servicios Urbanos del presente mes, sobre publicidad en la pantalla del Palacio de Congresos y Auditorio Kursaal.

JUSTIFICACIÓN

En la Comisión de Espacio Público. Obras y Servicios Urbanos de este mes, interpelamos al gobierno sobre la utilización con fines comerciales de la pantalla oeste del Kursaal, al haber comprobado ese uso de la fachada del edificio diseñado por el Sr. Moneo.

Tal como expusimos en la Comisión, la fachada oeste del edificio se ha convertido en una pantalla gigante de publicidad de 1.260 m². Cuando tuvimos conocimiento , hace casi un año, de que el Consejo de Administración del Kursaal había tomado esa decisión, ya denunciamos que es inadmisible que este edificio público, emblemático y protegido, se fuera a convertir en la pantalla gigante más grande del mundo, con la intención de servir de plataforma publicitaria. Presentamos una moción para intentar impedirlo, pero no fue aprobada.

En el debate de nuestra moción, el Alcalde, Sr. Goia, manifestó que era totalmente falso que

Kursaaleko mendebaldeko aurpegia publizitate-pantaila bilakatuko zenik; gainera, baieztatu zuen teknologia bakarrik aldatuko zela, baina erabilera, ordura arte bezala, informatiboa izango zela.

la cara oeste del Kursaal fuera a convertirse en una pantalla publicitaria, además, aseguró que solo cambiaría la tecnología, pero el uso iba a ser, como hasta entonces, con objetivos informativos.

Zoritxarrez, egiaztatu dugu alkate jaunak “helburu informatibo" moduan hartzen duena publizitate komertzial hutsa dela, marka bat proiektatzea edo marka baten ekitaldi bat iragartzea publizitatea egitea baita, eufemismoak eufemismo.

Lamentablemente, hemos comprobado que lo que el Sr. Alcalde entiende por “objetivos informativos”, es publicidad comercial pura y dura, ya que proyectar una marca o anunciar un evento de una marca es hacer publicidad, se usen los eufemismos que se usen.

Batzordean, gobernuari galdetu genion ea pantaila erabiltzeko Kursaaleko administrazio-kontseiluak ezarritako arauak betetzen direla uste duen, eta erantzun zigun baietz, nahiz eta arau horiek hau esan: "hiru hilean behin, Kursaal Elkargunea SAk bistaratze-sistemak izango duen erabilera zehatzari buruzko aurreikuspenak aurkeztu beharko ditu udaletxean”. Orain arte, halakorik ez da egin, eta jaso den informazio bakarra ahoz jaso da batzordean bertan, gerora, hiritar guztiek ikusteko aukera izan ostean. Erabilerei buruzko “aurreikuspen” bakar bat jaso gabe jarraitzen dugu.

En la Comisión, también preguntamos al gobierno si considera que se están cumpliendo con las normas que el Consejo de Administración del Kursaal ha establecido para el uso de la pantalla, a lo que se nos respondió que sí, a pesar de que las citadas normas establecen que: “trimestralmente el Centro Kursaal Elkargunea S.A. deberá presentar en el ayuntamiento la previsión de la utilización concreta del sistema de visualización”, lo que hasta ahora no ha sucedido, y la única información recibida ha sido oral en la propia Comisión, a posteriori, de lo toda la ciudadanía ya ha podido ver, si bien seguimos sin haber recibido ninguna “previsión” de usos.

Era berean, aipatutako erabilera-arauen arabera, tasa bat ordaindu behar da eremu publiko hori erabili ahal izateko; alabaina, guk dakigula, tasa hori ez da existitzen. Horri gaineratu behar zaio, arauen arabera, Kursaala alokatzen dutenek edo jaialdiak egiten dituztenek erabili ditzaketela pantailak. Hau da, jarduera horiek egiten dituztenek bakarrik erabili dezakete pantaila erraldoia, eta gainera, debalde, ez dagoelako tasarik.

Igualmente, la citadas normas de uso, establecen el pago de una tasa por el uso del dominio público, no obstante, no nos consta que exista esa tasa. Ello, unido a que las normas vinculan el uso de la pantalla al alquiler del Kursaal, o a la realización de Festivales, supone que solo quienes lleven a cabo esas actividades podrán usar la pantalla gigante, además gratis, porque no existe tasa.

Hori guztia dela eta, hau aurkezten dugu:

Por todo lo anteriormente expuesto, presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCION DE CONTROL

1. Donostiako Udalbaltzak Udal Gobernuari eskatzen dio, Kursaaleko administrazio kontseiluan duen ordezkaritzaz baliatuz, Kursaaleko mendebaldeko fatxadako argiztapenari buruz ezarritako erabilera arauen aldaketa sustatzeko, hura helburu komertzialak dituen publizitaterako erabiltzea debekatzeko.

1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que, a través de su representación en el consejo de administración del Kursaal, promueva la modificación de las normas de uso establecidas para la iluminación de la fachada oeste del Kursaal, de manera que no se permita la publicidad con fines comerciales en la misma.

2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio, pantailaren erabilera-arauetan jartzen duen moduan, “bistaratze sistemak izango duen erabilera zehatzari buruzko aurreikuspenak” eskatzeko Kursaal Elkargunea SAri, eta aurreikuspen horiek udal taldeei bidaltzeko.

2. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que solicite al Centro Kursaal Elkargunea S.A, “la previsión de la utilización concreta del sistema de visualización”, tal y como figura en las normas de uso de la pantalla, y a que la traslade a los grupos municipales.

3. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio ordenantza fiskaletan sartzeko Kursaaleko fatxada publizitate pantaila moduan erabiltzeari dagokion tasa.

3. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a incorporar a las Ordenanzas Fiscales la tasa correspondiente para la utilización de la fachada del Kursaal como pantalla publicitaria.

Donostia, 2018ko apirilaren 20an

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea”.

Donostia a 20 de Abril de 2018

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia”.

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak eta Jon Insausti Maisterrena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Amaia Martín Garín, D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga y D. Jon Insausti Maisterrena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**6. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**6. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK:2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 6 - EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 6 - EH BILDU.**

**6. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK:2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 25 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 25 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.1.7. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, lan istripuak ekiditeko neurri**

**II.1.7.Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU dirigida a la adopción de**

**proaktiboak izateari buruzkoa.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko otsailaren 12an Zerbitzu Orokorretako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Urtarrilaren 12an prebentziorako delegatu baten jarrera aktiboaren ondorioz, alegia, delegatuak egin zuen salaketari esker, udal arduradunek Eason egiten ari ziren obrak geldiarazi zituzten, eta beharrezko baliabideak izan arte obrak ez zirela berriz martxan jarriko agindu zuten. Izan ere, obrak egiten ari ziren moduak prebentzio neurririk gabe eta arriskutsu zeuden. Ekimen horrekin, Udal Gobernuaren utzikeriari aurre egin zitzaion eta lanak aurrera egiten jarraitzekotan erraz gerta zitezkeen istripuak ekidin ziren.

Positiboa izan zen udal arduradunek, salaketaren ondorioz, erabakiak berehala hartu izana, eta lanak berehala geldiaraziz eta neurriak eskatuz, egoera birbideratzea. Nolatan Udalak kontratatu zituen lanak, bere eraikin batean konponketak egiteko, baldintza horietan egiten ari ziren ulertezina izanik, interpelazioa aurkeztu genuen. Legea betetzen dela eta istripuak ehuneko ehunean ekiditerik ez dagoela izan ziren zinegotzi-delegatuaren hausnarketak, arriskuak ahalik eta gutxienetara mugatzea helburu dagoela azalduz.

**medidas proactivas para evitar accidentes de trabajo.**

“Amaia Amirall Lopez de Luzuriaga, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación tratada en la Comisión de Servicios Generales celebrada el 12 de febrero de 2018.

JUSTIFICACIÓN

El 12 de enero, como consecuencia de una postura activa de una persona delegada de prevención, es decir, gracias a la denuncia que hizo esa persona delegada, las y los responsables municipales detuvieron las obras que se estaban realizando en Easo, a la vez que prometieron que las obras no se podrían de nuevo en marcha hasta que se contara con los medios necesarios. Y es que las obras se estaban haciendo sin medidas de prevención y de forma arriesgada. Gracias a la citada iniciativa, se contrarrestó la negligencia mostrada por el Gobierno Municipal y se evitaron los accidentes que previsiblemente habrían ocurrido si las obras hubieran seguido adelante.

Consideramos positivo que, una vez hecha la denuncia, las y los responsables municipales adoptaran inmediatamente los acuerdos correspondientes y que, recondujeran la situación, ordenando paralizar inmediatamente las obras y exigiendo la adopción de las medidas necesarias. Nos resultaba incomprensible que, unas obras que había contratado el Ayuntamiento para realizar arreglos en uno de sus edificios, se estuvieran haciendo en semejantes condiciones y, por ello, presentamos la interpelación. Según las consideraciones que hizo la concejalía delegada, la ley se cumple y es imposible

evitar los accidentes en un 100 %, siendo el objetivo que el riesgo sea el mínimo posible.

Ez legoke esan beharrik horrelako egoera batean, lan osasunari dagokionez, gerta daitezkeen istripuak barne, hala nola istripu horiek ekiditeko hartu behar diren prebentzio neurriei dagokienez, Udalak ardura zuzenak dituela; baina legeak ezartzen duenetik harago ardura politikoa ere baduela gehitu beharko da, hau da, legearen betekizun hutsetik harago jarrera proaktiboarekin eredugarri izan behar duela Udalak. Horrelako jarrerak sustatzeko asmorik ez zen Batzordean azaldu eta gaian sakontzea beharrezkotzat jotzen dugu talde honetan.

Debería estar de sobra señalar que, en una situación de este tipo, el Ayuntamiento tiene una responsabilidad directa en lo que respecta a la salud laboral, incluidos los posibles accidentes, y tiene que garantizar las medidas de prevención que se deben adoptar para evitarlos. Pero hay que añadir que, además de los deberes impuestos por la ley, el Ayuntamiento tiene también una responsabilidad política que va más allá de lo anterior. Dicho de otro modo, el Ayuntamiento debe ser modelo de una actitud proactiva que vaya más allá del estricto cumplimiento de la Ley. En la Comisión no se comentó la intención de promover este tipo de actitudes, por lo que este grupo considera importante profundizar en el tema.

Adibidez prebentzio-delegatuen lana erraztea da Udal Gobernuak har dezakeen neurri zehatza, legeak ezartzen duenetik harago eta horrelako egoerak berriz gertatzea ekidin dezakeena, sailetako langileen aritzeari -askotan leku guztietara ailegatzeko ezintasunean daudenak- prebentzio-delegatuena gehituko litzaiokeelakoan. Aldiz, egun informazioa beranduegi ailegatzen zaie, eta obrak non eta noiz hasi diren peskizan ibili behar izaten dira, garaiz jakinez gero duten behatze funtzio onuragarria galduz, guztion kalterako.

Por poner un ejemplo, facilitar la labor de las delegadas y delegados de prevención es una medida concreta que podría adoptar el Gobierno Municipal, más allá de las obligaciones impuestas por la Ley, y que podría evitar que situaciones de este tipo volvieran a producirse, puesto que de este modo el trabajo de las y los delegados de prevención se sumaría al de los trabajadores y trabajadoras de los departamentos –quienes a menudo se encuentran con dificultades para llegar a todas las partes–. Sin embargo, en la actualidad la información les llega demasiado tarde, y deben andar a la búsqueda de dónde y cuándo han comenzado las obras, con lo que su función de observación, que resultaría tan útil, se malogra, cosa que no ocurriría si obtuvieran la información a tiempo. Lo que resulta en perjuicio de todos.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Por todo ello, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari hertsiki eskatzen dio, bere ardurapekoak izan litezkeen lan-istripuak ekiditea helburu, kontratatzen dituen obren berri helaraz diezaiela, sistematikoki eta exekuzioari hasiera eman aurretik, Lan Osasuneko kide guztiei —prebentzio-delegatuak barne—, parte guztien artean lanen behatzerik eraginkorrena lortze aldera eta, era berean, kontratatzen dituen enpresei gobernuak lan osasunari eta segurtasunari dagokien arautegiaren betetze zorrotza eska diezaiela.

El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que, al objeto de evitar accidentes laborales de los que pudiera resultar responsable, remita la información sobre las obras que contrata, sistemáticamente y antes de comenzar a ejecutarlas, a todas las personas miembros de Salud Laboral, incluidas las delegadas de prevención, de modo que entre todas las partes se consiga una vigilancia más efectiva de las obras. Asimismo, insta al Gobierno municipal a que exija el estricto cumplimiento de la normativa vigente sobre seguridad y salud laboral a todas las empresas con las que contrate.

Donostian, 2018ko apirilaren 20an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

San Sebastián, 20 de abril de 2018

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jaunak eta Jose Luis Arrue Pinto jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga y D. José Luis Arrúe Pintó, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.1.8. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak**

**II.1.8. Moción de control que presenta el**

**aurkeztua, Miramar Partzuergoaren egoera dela eta.**

“Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako MOZIO hau aurkezten du, Miramar Partzuergoaren egoera dela eta, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2018ko apirilaren 16ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

1985eko urtarrilean, Eusko Jaurlaritza eta Udalaren artean, Miramar Partzuergoa osatu zuten, eta urte bereko urrian Foru Aldundiak bertan parte hartzeko erabakia hartu zuen. Beraz, Miramar Jauregia kudeatu ahal izateko, hiru instituzioen arteko elkarlana sustatu zen.

Jakin genuen Eusko Jaurlaritzak -beti Kultura Sailari atxikituta egon da-, partzuergoa utzi nahi zuela. Hori dela eta, Udalbatzak EH Bilduk aurkeztutako mozio hau onartu zuen:

1-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio eskura dituen baliabide guztiak erabil ditzala, Eusko Jaurlaritzak Miramar Partzuergotik alde egin ez dezan.

Geroztik partzuergoak diru-sarrerak eta lehiakortasuna hobetzeko txostenak eskatu dizkie bi enpresari. Orain arte, alkateak aukera moduan bi lan ildo jarri ditu mahai gainean: lorategi azpian aparkalekua egitea (dagoeneko bertan behera geratu omen dena) eta hotel bat irekitzea. Besterik ez.

**Grupo EH BILDU sobre la situación del Consorcio Palacio Miramar.**

“Josu Mirena Ruiz, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente MOCIÓN, relativa a la situación Consorcio Palacio Miramar, a la consideración del Pleno. Esta moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios a las Personas el 16 de abril de 2018.

JUSTIFICACIÓN

En enero de 1985, el Gobierno Vasco y el Ayuntamiento de San Sebastián fundaron el Consorcio Palacio Miramar, al que se sumó la Diputación Foral en octubre del mismo año. Así, se promovió la cooperación entre las tres instituciones para la gestión del Palacio de Miramar.

Sin embargo, hace algún tiempo, supimos que el Gobierno Vasco pretendía abandonar el Consorcio, al que siempre ha estado adscrito por medio del Departamento de Cultura. Por ello, el Pleno del Ayuntamiento aprobó la siguiente moción, presentada por EH Bildu:

1- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al Gobierno Municipal que utilice todos los medios a su alcance para evitar que el Gobierno Vasco abandone el Consorcio del Palacio de Miramar.

Posteriormente, el Consorcio ha solicitado a dos empresas sendos informes para mejorar los ingresos y la competitividad del palacio. Hasta ahora, el alcalde ha planteado, como posibles opciones, dos líneas de trabajo: la construcción de un parking subterráneo debajo de los jardines (aunque parece que esta opción se ha descartado ya) y la apertura de un hotel. Nada más.

Argi dago Donostiak ez duela beste hotelik behar Miramarren. Eta argi dago Eusko Jaurlaritzak partzuergoan jarraitzea komeni zaiola Donostiari. Baina honetaz txintik ere ez dio alkateak.

Está claro que San Sebastián no necesita tener un hotel en Miramar. Y está claro que a San Sebastián le conviene que el Gobierno Vasco siga formando parte del Consorcio. Sin embargo, el alcalde no dice nada sobre esta cuestión.

Batzordean, Jon Insausti zinegotzi-delegatuak hotela aukera bat zela mantendu zuen, baina erabakirik ez dela hartu gaineratuz. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak Miramar Partzuergoan jarraituko duen ala ez, ez da argitu. Gogorarazi nahi dugu, gainera, bazkide batek partzuergoa utzi nahi balu, besteen oniritzia (Foru Aldundiarena eta Udalarena, kasu honetan) behar dela.

En la Comisión, el concejal delegado Jon Insausti mantuvo que la apertura de un hotel era una posibilidad, pero que no se había decidido nada al respecto. Por otro lado, no se ha aclarado si el Gobierno Vasco continuará formando parte del Consorcio Palacio Miramar. Hay que recordar que si uno de los miembros decide abandonar el Consorcio, necesita la aprobación del resto, es decir, de la Diputación Foral y del Ayuntamiento.

Begien bistakoa da Miramarrek garrantzi handia duela Donostiarentzat, eta ikusita Udal Gobernuak oraindik ere ez duela irizpide garbirik, funtsezkoa iruditzen zaigu udal talde guztien artean irizpide hori finkatzea.

Es evidente que Miramar es muy importante para San Sebastián y, como el Gobierno Municipal no tiene todavía un criterio claro al respecto, consideramos fundamental fijar este criterio entre todos los grupos municipales.

Honegatik guztiarengatik hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

Por todo ello, el concejal abajo firmante presenta la siguiente

MOZIOA

MOCIÓN

1- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, Miramarreko eraikuntzari buruzko etorkizuna finkatzeko, udal talde guztiekin landu ditzala Udalaren irizpideak.

1- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al Gobierno Municipal que, para definir el futuro del edificio de Miramar, elabore con todos los grupos municipales los criterios a adoptar por el Ayuntamiento.

Donostian 2018ko apirilaren 20an

San Sebastián, 20 de abril de 2018

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Josu Mirena Ruiz Martin,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Josu Ruiz Martin jaunak, Amaia Martin Garin andreak, Miren Albistur Garmendia andreak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Jon Insausti Maisterrena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Josu Ruiz Martín, D.ª Amaia Martín Garín, Dª. Miren Albistur Garmendia, D. Ernesto Gasco Gonzalo y D. Jon Insausti Maisterrena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.1.9. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, kale izendegia euskaraz ere erabiltzeari buruzkoa.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko irailaren 18an Gune Publikoen eta Obra eta Hiri Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2014ko urriaren 30ean Udalbatzak hiriko izendegia berritu zuen, bertan gaztelerazko zein, lehen aldiz, euskarazko izenei ofizialtasuna emanez. Euskararen erabileraren normalkuntzari begira erabaki honen dimentsioa ikaragarria da, eta seguruen bukatu eta ezartzen den neurrian hartuko dugu horren kontzientzia.

**II.1.9. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre el uso del callejero también en euskera.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación tratada en la Comisión de Espacio Público (Obras y Servicios Urbanos) celebrada el 18 de septiembre de 2017.

JUSTIFICACIÓN

El 30 de octubre de 2014, el Pleno del Ayuntamiento renovó el callejero de la ciudad, dando oficialidad a las denominaciones de calles y plazas en castellano y, por primera vez, también a las denominaciones en euskera. Desde el punto de vista de la normalización del uso del euskera, la dimensión de este acuerdo es enorme y, seguramente, en la medida en que el callejero se finalice y se implante, iremos tomando

mayor conciencia de ello.

Gune bati izena eman ondoren, ugari dira Udalak gauzatu behar dituen ekintzak: barne base-datuetan aldaketak egin, bizilagunei komunikatu, guneari dago(z)kion karteltxoa(k) jarri edo aldatu, dagozkion erakundeei komunikazioa egitea eta abar. Beraz, hilabete luzeetako lanak, askotan bata bestearen atzetik kateatuak edo baldintzatuak, beharrezkoak dira, Udalbatzak hartu duen erabakia amaitutzat jotzeko. Baina 2014ko bukaeran hasi zen lanak 2017ko udaberrian oraindik ere amaiera ez zuela ikusita, apirilean erabakia gauzatzeko lan eta zailtasunei buruz galdetu genuen. Emandako erantzuna egokia eta positiboa izan arren, inongo emaitzarik ez zuela ikusita, irailean berriz ere galdetu genuen. 2017ko irailaren hasieran berriz ere asmo onak agertu arren, urte bukaerarako data emanez, oraindik ere egun, adibide argi bezain garbi eta mingarria berdin-berdin dago: Fuenterrabia kalea bada Gipuzkoako hiriburuan.

Una vez que se ha aprobado la denominación de un lugar concreto, el Ayuntamiento tiene que realizar múltiples tareas al respecto: introducir modificaciones en las bases de datos internas, comunicar las nuevas denominaciones a la ciudadanía y a las instituciones a las que corresponda, colocar o cambiar la o las placas correspondientes, etc. Por lo tanto, es preciso realizar diversas tareas durante varios meses, algunas de ellas enlazadas a las anteriores o condicionadas por ellas, para poder dar por ejecutado el acuerdo adoptado por el Pleno Municipal. Pero, viendo que la labor comenzada a finales de 2014 aún no había finalizado en la primavera de 2017, en abril preguntamos sobre las tareas pendientes y las dificultades existentes en cuanto a la ejecución del acuerdo. A pesar de que la respuesta recibida fue adecuada y positiva, viendo que no hubo ningún resultado, en septiembre volvimos a preguntar sobre el tema. A comienzos de septiembre de 2017 se nos volvió a responder con buenas intenciones y se fijó el fin de año como fecha límite, pero todavía hoy podemos poner un ejemplo, claro y penoso, que sigue tal como estaba: en la capital de Gipuzkoa existe la calle Fuenterrabía.

Euskararen erabilerari begira Euskal Herri osoko indarrak biltzen eta metatzen ari diren bitartean, Donostiako Udalak bere esku dagoen txikiari ez dio heltzen, berak ere bultzada behar duela agertuz.

Mientras las fuerzas de toda Euskal Herria se unen y se suman unas a otras en lo que respecta al uso del euskera, el Ayuntamiento de San Sebastián no atiende lo poco que está en su mano, mostrando que él también necesita un impulso.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Es por ello por lo que la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari hertsiki eskatzen dio, 2014ko urriaren 30ean Udalbatzak harturiko erabakiak kontuan

- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que, teniendo en cuenta los acuerdos adoptados por el Pleno el 30 de

hartuta, kale izendegia euskaraz ere, dagokion osotasunean, erabiltzea errealitate izan dadin behar den ekintza planarekin lehenbailehen bukatzeko.

Donostian, 2018ko apirilaren 20an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

octubre de 2014, lleve a término lo antes posible el plan de actuación necesario para que la utilización también en euskera del callejero, en su totalidad, sea una realidad.

San Sebastián, 20 de abril de 2018

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak eta Alfonso Gurpegui Ruiz jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/la señor/a D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga y D. Alfonso Gurpegui Ruiz, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 23 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 2 - PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 23 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 2 - PP.**

---------------

**II.1.10. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, mendekotasun prestazioen murrizketen ingurukoa.**

"Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko apirilaren 20an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

**II.1.10. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre los recortes en las prestaciones para personas en situación de dependencia.**

"Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios a las Personas del 20 de abril de 2018.

JUSTIFIKAZIOA

Donostia Lagunkoia hiri planaren barruan, aldaketa demografikoak etxebizitzaren arlora dakartzan erronkei nola erantzun hausnartu eta eztabaidatzeko helburuz, 'Etxeak zahartzen ari den gizarte batean' jardunaldia egin zen 2017ko azaroaren 9an eta 10ean, Miramar Jauregian.

Jardunaldiaren harira, Donostiako Udalak, Etxegintzaren eta Matia Fundazioaren eskutik eta UPV/EHUko Arkitekturako Goi Eskola Teknikoaren laguntzarekin, Mugak Nazioarteko Arkitektura Bienala antolatu zuen. Plataforma horren bidez, erakutsi nahi izan da erronkei diziplina anitzeko ikuspegi batetik heldu behar zaiela, eragile publiko nahiz pribatuen eta herritarren artean lankidetza sareak ehunduz.

Jardunaldietan parte hartu zuten adituek argi eta garbi adierazi zuten etorkizuneko erronka izango dela adineko pertsonak eta dependentzia egoeran daudenak haien etxeetan eta ingurunean zaintzea. Izan ere, jardunaldi horietatik ateratako ondorioetako bat da adineko pertsonen % 87ak etxean bizi nahi duela, baina, soilik, etxeen % 24 dela irisgarria.

Udal Gobernuak eta hura osatzen duten bi alderdiek beti adierazi dute adineko pertsonen eta pertsona dependenteen zainketaren aldeko apustu egiten dutela haien ingurune naturalean, baina hartzen dituzten erabaki politikoak ez datoz esandakoarekin bat.

Hain zuzen ere, mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta

JUSTIFICACIÓN

El 9 y 10 de noviembre de 2017, dentro del plan de ciudad Donostia Lagunkoia, se celebraron, en el palacio de Miramar, las jornadas “La casa en una sociedad que envejece”, con el objetivo de reflexionar y debatir sobre la forma de hacer frente a los retos que supone el cambio demográfico en el ámbito de la vivienda.

Con motivo de dichas jornadas, el Ayuntamiento de San Sebastián organizó, de la mano de Etxegintza y de la Fundación Matia, y con la colaboración de la Escuela Técnica Superior de Arquitectura de la UPV, el Bienal Internacional de Arquitectura MUGAK. Lo que dicha plataforma ha querido poner de manifiesto es que todos los retos deben ser abordados desde una perspectiva plural, tejiendo redes de colaboración entre los agentes públicos y privados y la ciudadanía.

Las personas expertas que participaron en las jornadas señalaron claramente que el cuidado de las personas mayores y de las personas en situación de dependencia en su casa y en su entorno será el reto del futuro. Una de las conclusiones que se extrajo de dichas jornadas es que el 87 % de las personas mayores desean vivir en su casa pero que tan sólo el 24 % de las viviendas son accesibles.

A pesar de que el Gobierno Municipal y los dos grupos que lo componen siempre han afirmado que apuestan por el cuidado de las personas mayores y de las personas en situación de dependencia en su entorno natural, las decisiones políticas que han venido adoptando no concuerdan con dichas manifestaciones.

Concretamente, el nuevo Decreto Foral por el que se regulan las prestaciones económicas

zainketa sustatzeko 2006ko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritako prestazio ekonomikoak arautzen dituen foru dekretu berriak murrizketak eragin ditu mendekotasun prestazioak jasotzen dituztenengan 2018az geroztik.

Buelta asko eman eta gero, dekretu berria, 24/2017 foru dekretua, abenduaren 12an onartu zen Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluan; prestazioen zenbatekoen aldaketak, aldiz, abenduaren 27an onartu zituen Aldundiak, eta urtarrilaren 1ean sartu ziren indarrean.

Zenbatekoei dagokienez, aldaketarik garrantzitsuena mailaketa sei tartetik hiru tartera pasatzea izan da; hau da, orain arte 1.1, 1.2, 2.1, 2.2, 3.1 eta 3.2 graduak zeuden, eta hemendik aurrera, 1, 2, eta 3 graduak izango dira. Eta, noski, horrek ekarri ditu aldaketak zenbatekoen konfigurazioan.

Argazki laburra ematearren, eta Aldundiak Batzar Nagusietako EH Bildu taldeari emandako datuen arabera, 2017ko abenduan 16.697 pertsona ari ziren kobratzen mendekotasun prestazio bat Gipuzkoan. Horietatik, 7.344 donostiarrak dira.

Foru Aldundiak onartutako foru dekretuak irabazle eta galtzaileak sortu ditu, zehazki 4.330 pertsona atera baitira galtzen, eta gainontzekoak irabazten edo berdin. Hau da, Gipuzkoako 16.697 onuradunetatik % 27ak, hau da, 4.330 pertsonek, murrizketak jasan dituzte 2018tik aurrera.

de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, ha conllevado, a partir del 2018, recortes a las personas que perciben prestaciones de dependencia

Después de muchas idas y venidas, el nuevo Decreto 24/2017 fue aprobado por el Consejo de Diputados y Diputadas de la Diputación Foral el pasado 12 de diciembre. Sin embargo, los cambios en los importes de las prestaciones fueron aprobados el 27 de diciembre, y su entrada en vigor se produjo el 1 de enero del presente año.

En cuanto a las cantidades, el cambio más significativo consiste en que se ha pasado de una clasificación de seis niveles a una clasificación de tres; es decir, hasta ahora, existían los grados 1.1, 1.2, 2.1, 2.2, 3.1 y 3.2, y, a partir de ahora, tan sólo existirán los grados 1º, 2º y 3º. Evidentemente, como consecuencia de ello, se ha tenido que ajustar la distribución de las cantidades.

Por ofrecer una somera fotografía de la situación, según los datos que las Juntas Generales de la Diputación ha proporcionado al grupo EH Bildu, en diciembre de 2017, el número de personas que percibía alguna prestación de dependencia en Gipuzkoa ascendía a 16.697. De entre ellas, 7.344 eran donostiarras.

El Decreto Foral aprobado por la Diputación Foral ha hecho que existan personas ganadoras y personas perdedoras, ya que 4.330 han salido perdiendo, y el resto ha salido ganando o se ha quedado en la misma situación. Es decir, el 27 % de las 16.697 personas beneficiarias de Gipuzkoa, un total de 4.330 personas, ha sufrido recortes en el 2018.

Galera edo murrizketa Familia Inguruneko Zaintzetarako Prestazioaren (PECE) 1. eta 3. graduetan kontzentratu da. Modu horretan, 1. graduan eta Familia Ingurunekoaren kasuan 3.789 pertsonek izan dute, urtarrilaren 1etik aurrera, 24’52 euroko batez besteko diru galera hilero jasotzen duten prestazioaren zenbatekoan; urtean 294’24 euroko galera.

Dichas pérdidas o recortes se han concentrado en los grados 1º y 3º de la Prestación para Cuidados en el Entorno Familiar (PECE). Así, en el grado 1º y en el caso de los cuidados en el entorno familiar, 3.789 personas soportan, desde el 1 de enero, una pérdida media de 24,52 euros en la cantidad que perciben cada mes, lo que supone una pérdida anual de 294,24 euros.

Prestazio bereko 3. graduari dagokionez, 518 pertsonei murriztu zaie, batez beste, 80’04 euro hilean (denak lehengo 3.2 gradukoak, hau da, mendekotasun mailarik altuena); urtean 960,48 euroko galera.

En cuanto al grado 3º de la misma prestación, son 518 las personas que soportan, cada mes, una pérdida media de 80,04 euros (todas ellas correspondientes al grado 3.2 de la clasificación anterior, es decir, las personas valoradas con el máximo nivel de dependencia), lo que supone una pérdida anual de 960,48 euros.

Donostiaren kasuan, 857 pertsonek eta haien senideek jasan dute murrizketa hilabetero.

En el caso de San Sebastián, las personas y sus familiares que, cada mes, soportan dicho recorte son 857.

Apirileko batzordeetan delegatuari galdetu genion zer dela eta ez duen murrizketa horien berri eman Gizarte-ekintzako kontseiluan, Elkartu Federazioak gai-ordenean sartzea eskatu eta gero. Delegatuak adierazi zuen haren ustez informazio egokia eman zela eta foru dekretuak eragindako murrizketak ez zirela Udalaren gaia, eskumena Foru Aldundiarena delako.

En las comisiones de abril, preguntamos a la delegada por qué razón no dio cuenta de dicho recorte en el Consejo de Acción Social, a pesar de que la Federación Elkartu solicitara su inclusión en el orden del día. La delegada manifestó que, en su opinión, se ha proporcionado una información adecuada y que los recortes que se han aplicado como consecuencia del Decreto Foral no son un asunto del Ayuntamiento, ya que la entidad competente en dicha materia es la Diputación Foral.

Nahiz eta eskumena Foru Aldundiarena izan, gure ustez Udal Gobernuari ere badagokio murrizketak jasango dituzten pertsona hauen egoera zein den aztertzea eta adineko pertsonen zainketa egokia bermatzea.

A pesar de ello, consideramos que el Gobierno Municipal debe analizar la situación de las personas que soportan dichos recortes y garantizar un cuidado adecuado a las personas mayores.

Dependentzia egoeran dauden adingabeen kasuan, Foru Aldundiaren proposamen murriztaile honek mendekotasuna duten

Inicialmente, esta propuesta reduccionista de la Diputación Foral también afectaba a las personas menores en situación de

adingabeei ere eragiten zien, baina ASPACE edo GAUTENA bezalako kolektiboek egindako presioari esker, Aldundiak atzera jo zuen eta ez du murrizketarik aplikatuko 18 urtetik beherakoengan. Hala ere, mendekotasuna duten adingabeek 18 urte betetzen dituztenean, murrizketak aplikatuko zaizkie.

Batzordean delegatuari adingabeen inguruko datuak eskatu dizkiogunean, Foru Aldundiaren gaia dela erantzun digu berriro ere, daturik eman gabe.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari gizarte zerbitzuen bidez azter dezala zein egoeratan geldituko diren murrizketak jasango dituzten 857 donostiarrak eta balora dezala murrizketa horien ondorioz haien zainketa kalteturik aterako den ala ez.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hirian dependentzia egoeran dauden eta FIZPE delako prestazioa jasotzen duten adingabeen datuak eguneratu eta zehaz ditzala.

3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Gizarte-ekintzako departamenduan 14ko 39/2006 Legeak ezarritako prestazio ekonomikoen zenbatekoetan Aldundiak eragindako aldaketen berri eman dezala, Donostiako egoeraren inguruko argazkia barne.

4.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Gipuzkoako Foru Aldundiarekin

dependencia, pero gracias a la presión de colectivos como ASPACE y GAUTENA, la Diputación retrocedió en su pretensión, y, finalmente, no aplicará recortes a personas menores de 18 años. No obstante, en cuanto estas personas cumplan 18 años, también se verán afectadas por dichos recortes.

En la comisión, solicitamos a la delegada los datos sobre las personas menores afectadas, pero ella respondió, nuevamente, diciendo que es asunto de la Diputación Foral, por lo que no nos facilitó los datos solicitados.

Por todo ello, y teniendo en cuenta la situación expuesta, la concejala abajo firmante presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que, a través de los Servicios Sociales, estudie la situación en la que quedarán las 857 personas donostiarras que soportarán recortes y valore si dichos recortes tendrán alguna repercusión en el cuidado que reciben.

2.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que actualice y concrete los datos de las personas menores en situación de dependencia de la ciudad que perciben la prestación PECE.

3.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que informe al Departamento de Acción Social sobre las modificaciones que la Diputación ha realizado en los importes de las prestaciones económicas establecidas por la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, y a que realice una fotografía de la situación de San Sebastián.

4.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que se ponga en

harremanetan jar dadila, aipatutako prestazioetan murrizketarik egon ez dadin eta beraz, inongo donostiarrik kalteturik suerta ez dadin bideak aztertzeko.

Donostian, 2018ko apirilaren 20an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

contacto con la Diputación Foral de Gipuzkoa para que no se aplique ningún recorte en la citada prestación y para que se estudien las vías existentes para que la ciudadanía donostiarra no se vea perjudicada.

San Sebastián, 20 de abril de 2018

Olaia Duarte López,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak, Amaia Martin Garin andreak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak eta Aitziber San Roman Abete andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Olaia Duarte López, D.ª Amaia Martín Garín, D. José Luis Arrúe Pintó y D.ª Aitziber San Román Abete, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**10. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 10:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**10. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 10:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**

**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**10. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 10:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

**10. KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 10:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.1.11. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, etxez etxeko zerbitzuaren ingurukoa.**

“Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren

**II.1.11. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el servicio de ayuda a domicilio.**

“Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98

98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko martxoaren 12an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La moción de control trae causa de la interpelación sustanciada en la Comisión de Servicios a las Personas del 12 de marzo de 2018.

JUSTIFIKAZIOA

Donostia Lagunkoia hiri planaren barruan, ‘Etxeak zahartzen ari den gizarte batean’ jardunaldia egin zen 2017ko azaroaren 9an eta 10ean, Miramar Jauregian. Jardunaldietan parte hartu zuten adituek argi eta garbi adierazi zuten etorkizuneko erronka izango dela adineko pertsonak eta dependentzia egoeran daudenak haien etxeetan eta ingurunean zaintzea. Izan ere, jardunaldi horietatik ateratako ondorioetako bat da adineko pertsonen % 87ak etxean bizi nahi duela, baina, soilik, etxeen % 24 dela irisgarria.

Adineko pertsonak haien etxeetan zaintzeko udal zerbitzu garrantzitsuenetako bat Etxez Etxeko Laguntza zerbitzua da. Gainera, zerbitzu hau gizarte-zerbitzuen giltza edo sarbidea dela esaten dute adituek, arrisku edo dependentzia egoerak detektatzeko orduan.

Otsailaren 23an Gipuzkoako Foru Aldundiak bilera batera deitu zuen etxelaguntza zerbitzuaren hobekuntzen zein finantzazioaren inguruan hitz egiteko. Bilera horretara Gipuzkoako udal eta gizarte zerbitzuetako teknikariak eta zinegotziak gerturatu ginen.

Zerbitzua hobetzeko neurrien artean hurrengo hauek aipatu ziren:

JUSTIFICACIÓN

El 9 y 10 de noviembre de 2017, dentro del plan de ciudad Donostia Lagunkoia, se celebraron, en el palacio de Miramar, las jornadas “La vivienda en una sociedad que envejece”. Las personas expertas que participaron en dichas jornadas señalaron claramente que el cuidado de las personas mayores y de las personas en situación de dependencia en su casa y en su entorno será el reto del futuro. Una de las conclusiones que se extrajo de dichas jornadas es que el 87 % de las personas mayores desea vivir en su casa pero que tan sólo el 24 % de las viviendas son accesibles.

Uno de los servicios municipales más importantes para el cuidado de las personas mayores en sus domicilios es el Servicio de Ayuda a Domicilio. Además, personas expertas consideran este servicio como la clave o el acceso de los Servicios Sociales para detectar situaciones de riesgo o de dependencia.

El 23 de febrero, la Diputación Foral de Gipuzkoa organizó una reunión para tratar sobre la mejora del Servicio de Ayuda a Domicilio y su financiación. Técnicos y técnicas de los ayuntamientos y de los servicios sociales de Gipuzkoa, así como concejales y concejalas, acudieron a dicha reunión.

Entre las medidas de mejora del servicio, se citaron las siguientes:

- Zerbitzua urteko egun guztietan ezartzea.
- Prezio publikoaren gehieneko kopurua 15,00 eurotan ezartzea astelehenetik ostiralera.
- Zerbitzuaren gehieneko intentsitatea ezartzea: 4 ordu edo gehiago.
- Urgentziaz sartzeko modalitatea ezartzea.
- Beste zerbitzu mota batzuk ezartzeko aukera (adibidez, gaueko zerbitzua), eta zerbitzua mendekotasunik ez duten pertsonei zabaltzea (adingabeak, bazterkeria egoerak, gaixotasun mentala duten pertsonak...).

Alde batetik, etxelaguntzan egingo diren aldaketek eragina izango dute zerbitzua ematen duten langileengan eta, dagoeneko, sindikatu batzuek informazioa jasotzeko eskaera egin zuten Donostiako aldaketak zeintzuk izango diren jakiteko.

Bestetik, auxiliarren lan konbenioaren negoziaketa dela eta, komiteak hiru aldiz bilera eskatu zuen Gizarte-ekintzako delegatuarekin, baina delegatuak ez zuen erantzunik eman. Horregatik, gaia eraman genuen martxoko batzordeetara eta bertan delegatuak adierazi zigun martxoaren 16rako bilera hitzartua zuela eta aurrerago Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuaren erregalamendu berria azaltzeko bilera berezi bat antolatuko zutela.

Apirilaren 19ko Gizarte-ekintza kontseiluan, eragile batek berriro galdetu du Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuaren inguruan eta langileen kezka adierazi du. Delegatuak aipatu du gaiaren inguruko monografikoa maiatzean izango dela. Kontuan hartuta nolako zerbitzua den, oso garrantzizkoa da ariketa hori guztion artean egitea eta iragarri den saio

- Ofrecer el servicio todos los días del año.
- Fijar el importe máximo del precio público del servicio que se presta lunes a viernes en 15,00 euros.
- Establecer la intensidad máxima del servicio: 4 horas o más.
- Establecer la modalidad de ingreso urgente.
- Introducir otro tipo de servicios (por ejemplo, servicio nocturno) y ampliar la oferta a las personas no dependientes (menores de edad, situaciones de exclusión, personas con enfermedades mentales…).

Por una parte, las modificaciones que se lleven a cabo en el Servicio de Ayuda a Domicilio influirán, sin duda, en el personal que trabaja en él. En este sentido, algunos sindicatos ya han solicitado información sobre las modificaciones que se llevarán a cabo en San Sebastián.

Por otra parte, con respecto a la negociación del convenio laboral del personal auxiliar, el Comité solicitó en tres ocasiones una reunión con la delegada de Acción Social, pero la delegada no respondió a dicha solicitud. Como consecuencia de ello, presentamos una iniciativa en relación con este asunto en las comisiones de marzo, y la delegada nos comunicó que había concertado una reunión para el 16 de marzo y que más adelante convocaría una reunión extraordinaria para explicar el nuevo Reglamento del Servicio de Ayuda a Domicilio.

En el Consejo de Acción del 19 de abril, un agente ha vuelto a preguntar por el Servicio de Ayuda a Domicilio y ha trasladado la preocupación del personal. La delegada señaló que la reunión monográfica para tratar sobre este asunto se celebrará en mayo. Teniendo en cuenta las características del servicio, es muy importante que este ejercicio

monografikoan langileek beraiek beren ikuspuntua txertatzeko aukera izatea. Horregatik Udal Gobernuak azken hau kontuan izatea ziurtatzea beharrezkoa da. Udal Gobernuak, ordea, ez du horretarako inongo bermerik eman.

se realice entre todos y todas y que el personal tenga la oportunidad de aportar su punto de vista en la sesión monográfica anunciada. Por ello, es necesario que el Gobierno Municipal asegure que este extremo se va a tener en cuenta. Sin embargo, el Gobierno Municipal no ha ofrecido garantías de que vaya a ser así.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

Por todo ello, y teniendo en cuenta la situación expuesta, la concejala abajo firmante presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Etxez Etxeko Zerbitzuaren erregalamendu berria aztertzeko egingo den “saio monografikoa” delakoan (Gizartekintza Aholku Kontseiluaren baitakoa) zerbitzua ematen duen enpresaren komiteko kideak gonbidatu ditzala, zerbitzua ematen duten pertsonen ikuspuntua zuzenean eta saioan bertan txertatzeko eta kontuan hartzeko.

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que invite a los miembros del Comité de Empresa a la sesión monográfica, relacionada con el Consejo Asesor de Acción Social, que se celebrará para tratar sobre el nuevo Reglamento del Servicio a Domicilio, con el objetivo de que el punto de vista del personal que presta el citado servicio sea directamente incorporado y tenido en cuenta en la citada sesión.

Donostian, 2018ko apirilaren 20an

San Sebastián, 20 de abril de 2018

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Olaia Duarte López,
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak, Amaia Martin Garin andreak eta Aitziber San Roman Abete andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras D.ª Olaia Duarte López, D.ª Amaia Martín Garín y D.ª Aitziber San Román Abete, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2)**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2)**

**IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.1.12. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Aiete pasealekuaren eta Oriamendi pasealekuaren arteko bide segurtasuna hobetzeko, trafikoa baretzeko eta bizikleta bidea egiteko proiektuaren obran atzera egin izana dela eta.**

“Ayem Oskoz Urrutikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, kontrol mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko otsailaren 16an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

AZALPENA

Martxoaren 12an jakin genuen Aiete pasealekuaren eta Oriamendi pasealekuaren arteko bide segurtasuna hobetzeko, trafikoa baretzeko eta bizikleta bidea egiteko proiektuaren obran atzera egin behar izan dela proiektuaren aurrekontuan akats bat izan delako.

Gogoratu behar da proiektu honen lehen ikerketa txostenak hiru urte baino gehiago dituela eta Udal Gobernu hau ez dela gai izan proiektua aurrera ateratzeko; oraingo honetan aurrekontu bat zuzen ez egitegatik. Eta gainera ez dugu ezagutzen balizko zuzenketa hori noiz eman litekeen.

Horrez gain, ezagunak dira bertako auzo

**II.1.12. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el desistimiento en la obra correspondiente al proyecto de mejora de la seguridad vial, calmado del tráfico y creación de una vía ciclista entre el Paseo de Aiete y el Paseo de Oriamendi.**

“Ayem Oskoz Urrutikoetxea, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción de control, para su tratamiento en pleno, consecuencia de la interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público celebrada el pasado 16 de febrero de 2018.

JUSTIFICACIÓN

El 12 de marzo pasado supimos que, debido a un error en el presupuesto del proyecto, el Ayuntamiento se ha visto obligado a desistir en la obra correspondiente al proyecto de mejora de seguridad vial, calmado de tráfico y creación de una vía ciclista entre el Paseo de Aiete y el Paseo de Oriamendi.

Tenemos que recordar que el primer estudio correspondiente a este proyecto data de hace más de tres años y que este Gobierno Municipal no ha sido capaz de sacar adelante el proyecto, esta vez por no haber realizado un presupuesto correctamente. Además, desconocemos cuándo se puede producir su posible corrección.

Por otra parte, también son conocidas las

elkartearekin dauden desadostasunak behin betiko proiektuak planteatzen duen ibilbidearekin, eta Udal Gobernu hau ez da bizilagunekin adostasun batera iristeko gai izan. Proiektu honen egoera, une honetan, oso kezkagarria da.

Zinegotzi-ordezkariari galdetuta ea noiz egingo den zuzenketa hau eta noiz egon litekeen proiektu hau martxan, ez zuen jakin datarik ematen eta momentu honetan proiektua kolokan dago.

Horregatik guztiarengatik, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Aiete pasealekuaren eta Oriamendi pasealekuaren arteko bide segurtasuna hobetzeko, trafikoa baretzeko eta bizikleta bidea egiteko proiektuaren lanak urtea amaitu baino martxan jartzea.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Aieteko bizilagun elkartearekin adostasuna lortzeko ahalegina egin dezala proiektu honetako ibilbideari dagokionez.

Donostian, 2018ko apirilaren 20an

Ayem Oskoz Urrutikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

desavenencias existentes con la asociación vecinal por el trazado que plantea el proyecto definitivo, no siendo capaz este Gobierno Municipal de llegar a un acuerdo con los vecinos y las vecinas. Así, la situación que presenta actualmente este proyecto es muy preocupante.

Tras interpelar a la concejala delegada sobre el plazo para realizar dicha corrección y poner el proyecto en marcha, esta no supo dar una fecha concreta y, hoy por hoy, el proyecto esta en el aire.

Es por ello por lo que el concejal que suscribe presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1.- El Pleno insta al Gobierno Municipal a que ponga en marcha las obras del proyecto de mejora de seguridad vial, calmado de tráfico y creación de una vía ciclista entre el Paseo de Aiete y el Paseo de Oriamendi antes de la finalización del presente año.

2.- El Pleno insta al Gobierno Municipal a que trate de llegar a un acuerdo con la asociación vecinal de Aiete sobre el trazado de este proyecto.

Donostian, 2018ko apirilaren 20an

Ayem Oskoz Urrutikoetxea,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Ayem Oskoz Urrutikoetxea jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. Ayem Oskoz Urrutikoetxea, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

ONARTUA.
AHO BATEZ.

APROBADA.
UNANIMIDAD.

---------------

ATSEDENALDIA

14:00ETAN, ATSEDENALDIA EGITEN DA ETA BERRIRO ERE EKITEN ZAIO SAIOARI, 15:05AK DIRENEAN.

RECESO

SIENDO LAS 14:00 H., SE REALIZA UN RECESO Y SE REANUDA LA SESIÓN, CUANDO SON LAS 15:05 H.

---------------

GORABEHERAK:

EGUERDIKO ETENALDIAREN ONDOREN, LEHENDAKARIARI HITZA ESKATU ETA, "LA MANADA"RI EGINDAKO EPAIKETAN IZANDAKO EPAIA EZAGUTU ETA GERO, TALDEEI UDALBATZAREN OSOKO BILERA ETETEA EDO EZ, GALDETZEA ESKATU DU IRABAZI DONOSTIAREN BOZERAMAILE AMAIA MARTINEK.

UDALEKO TALDE POLITIKOEI HITZ EGITEKO TXANDA EMAN DIE LEHENDAKARIAK.

EH BILDU TALDEAREN BOZERAMAILE AMAIA ALMIRALLEK ESAN DU ADOS DAGOELA BILERA ETETEAREKIN.

PSE-EE DONOSTIAKO SOZIALISTAK TALDEAREN BOZERAMAILE ERNESTO GASCORENTZAT ETA EAJ-PNV TALDEAREN BOZERAMAILE JON INSAUSTIRENTZAT, BERRIZ, EZ DA ETEN BEHAR UDALBATZAREN OSOKO BILERA.

HALA, BILERA EGITEN SEGITZEA ETA,

INCIDENCIAS:

TRAS EL RECESO, LA SRA. MARTÍN GARÍN, COMO PORTAVOZ DEL GRUPO IRABAZI DONOSTIA, PIDE LA PALABRA AL SR. PRESIDENTE Y SOLICITA QUE SE SOMETA A VALORACIÓN DE LOS GRUPOS POLÍTICOS LA INTERRUPCIÓN DEL PLENO TRAS EL CONOCIMIENTO DE LA SENTENCIA DEL JUICIO A “LA MANADA”.

EL SR. PRESIDENTE ABRE UN TURNO DE PALABRA A LOS GRUPOS POLÍTICOS MUNICIPALES.

LA PORTAVOZ DEL GRUPO EH BILDU, LA SRA. ALMIRALL LOPEZ DE LUZURIAGA, MANIFIESTA SU CONFORMIDAD CON LA INTERRUPCIÓN DEL PLENO.

EL PORTAVOZ DEL GRUPO SOCIALISTAS DONOSTIARRAS PSE-EE, EL SR. GASCO GONZALO, Y EL PORTAVOZ DEL GRUPO EAJ-PNV, EL SR. INSAUSTI MAISTERRENA, CONSIDERAN QUE NO SE DEBE INTERRUMPIR LA SESIÓN PLENARIA.

EL SR. PRESIDENTE ACUERDA

**BUKATUTAKOAN, BOZERAMAILEEN BATZORDEA BILTZEA ERABAKI DU LEHENDAKARIAK.**

**CONTINUAR CON EL PLENO Y REUNIRSE EN JUNTA DE PORTAVOCES AL FINALIZAR EL MISMO.**

**EH BILDU ETA IRABAZI DONOSTIA TALDEETAKO ZINEGOTZIEK KENDU EGIN DITUZTE AURKEZTUTA ZITUZTEN KONTROL MOZIOAK (13.ETIK AURRERAKOAK), ETA JOAN EGIN DIRA BILERA ARETOTIK.**

**LOS CONCEJALES DE LOS GRUPOS EH BILDU E IRABAZI DONOSTIA RETIRAN SUS MOCIONES DE CONTROL (A PARTIR DE LA N.º 13) Y SE AUSENTAN DEL SALÓN DE PLENOS.**

---------------

**II.1.17. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, San Bartolome kaleari buruzkoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu, eta MOZIO hau aurkezten dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak 2018ko apirilaren 16an izan zuen bileran San Bartolome kaleaz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Duela urtebete, 2017ko martxoko osoko bilkuran, gure taldeak San Bartolome kaleaz aurkeztutako kontrol mozio bat onartu zen. Hauexek dira mozio hartan jasotzen ziren puntuak:

“LEHENENGOA: Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari alda dezala establezimendu publikoen eta aisialdi jardueren kokapena arautzen duen Udal Ordenantzaren lehen xedapen gehigarria, zona asetzat hartzeari uzteko “San Bartolome kalea eta alboko kaleak” –zona hori mugatzen dute San Bartolome kaleak berak (izen bereko kalezuloa barne dela), Triunfo kaleak (4, 6 eta 8 zenbakiak) eta San Martin kaleak (zenbaki

**II.1.17. Moción de control, presentada por el Grupo PP, relativa a la calle San Bartolomé.**

“Miren Albistur Garmendia, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público. Obras y Servicios Urbanos, celebrada el día 16 de Abril de 2018, relativa a la calle San Bartolomé.

JUSTIFICACIÓN

Hace un año en el pleno de marzo de 2017 se aprobó una Moción de Control presentada por nuestro Grupo relativa a la calle San Bartolomé que contenía los siguientes puntos.

“PRIMERO: El Ayuntamiento Pleno insta al Equipo de Gobierno a que realice la modificación de la Disposición Adicional Primera de la Ordenanza Municipal reguladora de la Ubicación de Establecimientos Públicos y Actividades Recreativas, para eliminar la consideración “zona saturada” la “Calle San Bartolomé y adyacentes, que queda delimitada por la propia Calle San Bartolomé (incluido el Callejón del mismo nombre), la calle Triunfo –

bakoitiak, 43tik 61era)–.

números 4, 6 y 8- y la calle San Martín –números impares del 43 al 61-.

BIGARRENA: Udalbatzak gobernu taldeari eskatzen dio aurkez dezala alde horretako merkataritza suspertzeko plan bat, Merkataritzako Aholku Kontseiluaren eta Sustapena SAren bidez".

SEGUNDO: El Ayuntamiento Pleno solicita al Equipo de gobierno a que presente un plan de revitalización comercial de esta zona de la mano del consejo Asesor de Comercio, así como Fomento S.A."

Ikusita hilabeteak aurrera zihoazela eta ordenantza ez zela aldatzen eta auzoko merkataritza pizteko planik ere ez zela, irailean beste kontrol mozio bat aurkeztu genuen. Gobernu taldeak haren aldeko botoa eman zuen, eta, hortaz, Udal Gobernuak konpromiso hauek hartu zituen:

Dado que transcurrían los meses y no se producía la modificación de la Ordenanza y la no disposición del plan de revitalización comercial de esta zona, volvimos a presentar otra Moción de Control, en el mes de Septiembre, que contó con los votos a favor del Equipo de Gobierno en la que se adoptaron los siguientes compromisos por parte del Gobierno municipal.

"LEHENENGOA: Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari amai dezala San Bartolome aldeari buruzko azterketa eta eman dezala ezagutzera, Sustapeneko Administrazio Kontseiluan eta Merkataritzako Aholku Kontseiluan horren gainean eztabaidatu ahal izan dadin.

"PRIMERO: El Ayuntamiento Pleno insta al Equipo de Gobierno a terminar el estudio relativo al área de San Bartolomé y lo de a conocer para su debate en el Consejo de Administración de Fomento y Consejo Asesor de Comercio.

BIGARRENA: Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari, horri buruz eztabaidatu ondoren, has dadila aldatu beharreko arauak aldatzen, San Bartolome aldea biziberritzeko planari ekiteko.

SEGUNDO: El Ayuntamiento Pleno insta al Equipo de Gobierno a que una vez debatido inicie los cambios normativos para emprender el plan de revitalización del área de San Bartolomé."

Gobernu taldeak konpromiso horiek hartu bazituen ere, urtebete baino gehiago igaro da ordutik, eta oraindik ez dugu alde horretako merkataritza biziberritzeko planik, nahiz eta Hirigintzako zinegotziak adierazi zuen Donostiako Sustapena baltzuak egina duela plan hori;  beraz, ez da aldatu 2004an San Bartolome kalea eta aldamenekoak alde asetzat jo zituen udal ordenantza.

A pesar de los compromisos adquiridos por parte del Equipo de Gobierno ha pasado más de un año y no disponemos del plan de revitalización comercial de esta zona, aunque el Delegado de Urbanismo afirmó que estaba realizado por parte de la Sociedad de Fomento San Sebastián, y por tanto no se ha producido la modificación de la Ordenanza Municipal que en el 2004 declaró zona saturada la calle San Bartolomé y adyacentes.

2018. urtean gaude, eta egoerak ez du batere

Estamos en el año 2018 y la situación ya no

zerikusik ordenantzan jasotzen denarekin. Udalak badu aukera hori aldatzeko eta Donostia erdialdeko alde horretako merkataritza jarduera bultzatzeko.

tiene nada que ver con la realidad que recoge la ordenanza, y el ayuntamiento tiene la posibilidad de revertir esta situación y de intentar favorecer la actividad comercial de esta zona del centro de nuestra ciudad.

Gainera, eduki ekonomikorik gabeko zuzenketa bat ere onartu zen 2018ko aurrekontuan, kontrol mozioak betetzea dela eta.

Además se aprobó una enmienda sin contenido económico para el presupuesto 2018 para avanzar en el cumplimiento de las mociones de control.

Hori dela eta, Talde Popularrak honako MOZIO hau aurkezten du:

A la vista de lo que antecede, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta gobernu taldeari eman diezaietela ezagutzera Sustapen baltzuak alde horri buruz egindako azterlana hala kontseiluko kideei nola Merkataritzako Aholku Kontseiluari.

1.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que den a conocer el contenido del estudio realizado por la Sociedad de Fomento relativa a esta zona, tanto a los miembros del consejo así como al consejo Asesor de Comercio.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta gobernu taldeari, txostena ezagutzera eman ondoren, has dezatela Establezimendu publikoen eta aisialdi jardueren kokapena arautzen duen Udal Ordenantzaren lehen xedapen gehigarria aldatzeko prozedura, zona asetzat hartzeari uzteko “San Bartolome kalea eta alboko kaleak” –zona hori mugatzen dute San Bartolome kaleak berak (izen bereko kalezuloa barne dela), Triunfo kaleak (4, 6 eta 8 zenbakiak) eta San Martin kaleak (zenbaki bakoitiak, 43tik 61era)–.

2.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a una vez dado a conocer el informe, inicien el procedimiento para la modificación de la Disposición Adicional Primera de la Ordenanza Municipal reguladora de la Ubicación de Establecimientos Públicos y Actividades Recreativas, para eliminar la consideración “zona saturada” la “Calle San Bartolomé y adyacentes, que queda delimitada por la propia Calle San Bartolomé (incluido el Callejón del mismo nombre), la calle Triunfo – números 4, 6 y 8- y la calle San Martín – números impares del 43 al 61-.

Donostia, 2018ko apirilaren 20a

En Donostia/ San Sebastián, a 20 de Abril de 2018

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea”.

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular”.

Miren Albistur Garmendia andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora D.ª Miren Albistur Garmendia, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.1.18. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, aldirietako aparkalekuei eta mugikortasunari buruzkoa.**

"Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu, eta MOZIO hau aurkezten dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) 2018ko apirilaren 16an izan zuen bileran aldirietako aparkalekuei eta mugikortasunari buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Agintaldi honetan, Mugikortasun Zuzendaritzak esperotako emaitzak eman ez dituzten neurri asko hartu ditu. Edonola ere, orain hizpidera bi kontu jakin ekarriko ditugu, uda iristear dela eta.

Gobernu taldeak abian jarritako neurrietako bat da hiriko sarreretan jartzea aparkalekuak, autoak erdialdera ez iristeko eta trafikoko bideak ez kolapsatzeko. Azken udetan, neurri horrek ez du ondo funtzionatu, nahiz eta autobusak ere jarri diren aldirietako aparkalekuak erdialdearekin lotzeko.

**II.1.18. Moción de control que presenta el Grupo PP relativa a aparcamientos disuasorios y movilidad.**

"Miren Albistur Garmendia, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Servicios Generales, celebrada el día 16 de Abril de 2018, relativa a aparcamientos disuasorios y movilidad.

JUSTIFICACIÓN

A lo largo del presente mandato son muchas las medidas adoptadas desde el Departamento de Movilidad que no dan los resultados esperados. En este momento, nos vamos a centrar en dos cuestiones concretas, ahora que estamos llegando al verano.

Una de las medidas puestas en marcha por el actual Equipo de Gobierno es la de habilitar aparcamientos disuasorios a las entradas de la ciudad con el fin de que los coches no lleguen hasta el centro colapsando las vías de tráfico. En los últimos veranos dicha medida no ha funcionado, pese a disponerse, incluso de

autobuses lanzadera para conectar los aparcamientos disuasorios con el centro de la ciudad.

Bestalde, Mugikortasun Zuzendaritzak kolapsoak saihesteko erabiltzen dituen neurriak ere aipatu nahi ditugu. 2016. urterako aurreikusia zegoen halako neurriak hartzea, eta bazen horretarako aurrekontua ere. Hala ere, ez zen neurri esanguratsurik hartu, eta kontu-saila gastatu gabe geratu zen. Orain, dirudienez, gobernu taldeak proba pilotu bat jarri nahi du martxan, ibilgailuen matrikulak identifikatu eta aldirietako aparkalekuetara bideratzeko, edo beste neurri batzuk hartu nahi ditu, udan hirian izaten diren trafiko kolapso handiak saihesteko.

Otras de las cuestiones que queremos hacer mención es la de las medidas que el Departamento de Movilidad utiliza para evitar los colapsos. Para el año 2016 estaba prevista la adopción de una serie de medidas en este sentido, incluso con apoyo presupuestario. Pero no se adoptó ninguna medida significativa y la partida quedó sin gastar. Ahora, al parecer, el Equipo de Gobierno quiere poner en marcha una prueba piloto para identificar matrículas de los vehículos y desviarlos a los aparcamientos disuasorios, o adoptar otras medidas que eviten los grandes colapsos de tráfico que suele sufrir nuestra ciudad en verano.

Azken batzordean, Mugikortasuneko zinegotzi ordezkariak esan zuen aurtengo udan ez dutela esandako proba pilotu hori martxan jarriko. Beste behin, gobernu taldeak abian jarriko ez dituen jarduerak iragarri ditu, nahiz eta horretarako kontu-sailak badiren. Halaxe gertatu zen 2017. urteko aurrekontuan auto ilarak saihesteko irtenbideak bilatzeko jarrita zeuden kontu-sailekin ere.

En la última Comisión, la Concejal Delegada de Movilidad afirmó que este verano no se va a poner en marcha la prueba piloto mencionada. Una vez más, el Equipo de Gobierno anuncia actuaciones que no se van a poner en marcha pese a contar, incluso, con partidas económicas para ello, como las que preveían soluciones para evitar las congestiones de tráfico en el Presupuesto del pasado año 2017.

Aldirietako aparkalekuei dagokienez, gobernu taldeak, batzordean adierazitakoaren arabera, espazio horien erabilera hobetzeko lanean jarraitu nahi du, baina ez zuen ezer gehiago zehaztu. Uste dugu gure erregidoreek ahalegin handiagoa egin behar dutela mugikortasuna hobetzeko eta beharrezkoa dela udan gure hirian jartzen diren aldirietako aparkalekuak erabiltzea, auto ilarak saihesteko hala. Hori dela eta, PP taldeak honako MOZIO hau aurkezten du:

En relación a los aparcamientos disuasorios, la intención del Equipo de Gobierno -expresada en Comisión-, es la de seguir trabajando para mejorar la utilización de estos espacios, pero sin mayor concreción. Vemos necesario un mayor esfuerzo por parte de nuestros regidores para mejorar la movilidad, y la utilización de los aparcamientos disuasorios que se disponen en verano en nuestra ciudad y reducir, así, los colapsos de tráfico. Por todo esto, el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen

1.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San

die alkateari eta Gobernuari, ekainaren 1a baino lehen, azal diezagutela Udaleko talde politikooi zer neurri diseinatu dituen Mugikortasun Atalak trafikoa kudeatzeko eta udan gure hirian auto ilararik ez izateko.

Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que, antes del 1 de junio, proceda a explicar a los Grupos Políticos de este Ayuntamiento las diversas medidas diseñadas desde el Departamento de Movilidad para la gestión del tráfico, y para evitar los atascos este verano en nuestra ciudad.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta gobernuari aurtengo udan informazio puntuak jar ditzatela hiritik gertu dauden autobideetako ordaintokietan eta zerbitzuguneetan, bisitariak erakartzeko eta informazio osatu eta zehatza emateko Donostiara iristeko moduari buruz eta hiriko aparkalekuei buruz, bai eta Udalak jarritako aldirietako aparkalekuei buruz ere.

2.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que, este verano, habiliten puntos de información en peajes y áreas de servicio próximas a la ciudad para atraer visitantes y ofrecerles información completa y precisa sobre cómo llegar a San Sebastián, y sobre los diferentes aparcamientos existentes en la ciudad, así como los disuasorios habilitados por el Ayuntamiento.

3.- Donostiako Udalbatzak alkateari eta gobernu taldeari eskatzen die aurtengo udan hainbat toki presta ditzatela gure hirian autokarabanak aparkatzeko dagoen eskaerari erantzuteko.

3.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que, este verano, se habiliten diversas ubicaciones para dar respuesta a la demanda de aparcamiento para autocaravanas en nuestra ciudad.

4.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta gobernu taldeari egin beharreko ahaleginak egin ditzatela ibilgailuen nabigatzaileek eta telefonia aplikazioek informazio eguneratua izan dezaten aparkalekuen okupazioari buruz eta Udalak jarritako aldirietako aparkalekuen kokapenari buruz.

4.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que se hagan los esfuerzos necesarios para lograr que los navegadores de los vehículos y las aplicaciones de telefonía puedan contener la información necesaria actualizada en relación a la ocupación de los aparcamientos y la ubicación de aquellos disuasorios implementados por el Ayuntamiento.

Donostia, 2018ko apirilaren 20a

En Donostia/ San Sebastián, a 20 de Abril de 2018

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularreko zinegotzia”.

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular”.

Eztabaida hasita, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/la señor/a D. José María Murguiondo Casal y D.ª Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**18. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 18:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:** |
| **ONARTUA.** | **APROBADO.** |
| **AHO BATEZ.** | **UNANIMIDAD.** |

**18. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 18:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:** |
| **BAZTERTUA.** | **RECHAZADO.** |
| **GEHIENGOA.** | **MAYORÍA.** |
| **ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.** | **VOTOS A FAVOR: 3 – PP.** |
| **AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.** | **VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.** |
| **ABSTENTZIOAK: 0.** | **ABSTENCIONES: 0.** |

**18. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 18:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:** |
| **BAZTERTUA.** | **RECHAZADO.** |
| **GEHIENGOA.** | **MAYORÍA.** |
| **ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.** | **VOTOS A FAVOR: 3 – PP.** |
| **AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.** | **VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.** |
| **ABSTENTZIOAK: 0.** | **ABSTENCIONES: 0.** |

**18. KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 18:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.1.19. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, graffitien eta pintaden gainekoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen dion babesa aintzakotzat hartu eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Zerbitzu Orokorren Batzordeak 2018ko apirilaren 16an izan zuen graffitien eta pintaden gainean egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Herritar askok bidaltzen dio kexua Udalari hiriko zenbait toki “edertzen” dituzten pintada eta graffiti ugari direla eta. Horixe da donostiarrei gehien kezkatzen dien gaietako bat.

Egia da Udalak eskari horiei erantzun eta garbitu egiten ditu pintada eta graffiti horiek. Hala ere, hiriaren egoera orokorrari erreparatuz gero, puntu asko dira zenbait pertsonak fatxadak, paretak eta kaleko altzariak margotu eta ekintza horien ondorioak

**II.1.19. Moción de control que presenta el Grupo PP relativa a grafitis y pintadas.**

“Miren Albistur Garmendia, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Servicios Generales, celebrada el día 16 de Abril de 2018, relativa a grafitis y pintadas.

JUSTIFICACIÓN

Muchos ciudadanos suelen hacer llegar sus quejas al Ayuntamiento en relación a las numerosas pintadas y grafitis que suelen “adornar” diversas partes de la ciudad. Es este uno de los capítulos que más preocupa a los donostiarras.

Es cierto que el Ayuntamiento suele acudir a estos requerimientos y procede a la limpieza de los mismos. Sin embargo, el estado general de la ciudad presenta muchos puntos donde algunos ciudadanos han procedido a pintar fachadas, paredes y elementos del mobiliario

nozitzen dituztenak.

urbano que sufren las consecuencias de estas acciones.

Udalak badaki ondo kontu horien denen berri, baina ez du pintada eta graffiti horiei aurrea hartzeko edota garbitzeko ahalegin handiagorik egiten, nahiz eta gure talde politikoak behin baino gehiagotan adierazi dien udal agintariei ahalegin handiagoa egin behar dela gai horretan.

El Gobierno Municipal es consciente de estas situaciones pero no pone más empeño en prevenir estas pintadas y grafitis y para su posterior limpieza, a pesar de que desde este Grupo político hemos hechos saber a nuestros regidores de la necesidad de implementar esfuerzos en este ámbito.

Eibarko Udalak, berriz, aurreko urtearen bukaeran jarri zuen abian graffitiak eta pintadak garbitzeko kanpaina bat, udalerriko auzoek hala eskatu eta gero. Kanpaina horrek zera eskaintzen du: Udalak doan garbitzea jabekideen komunitateen etxeetako hormak, erkidego horiek agiri batzuk aurkeztuz gero hari, Udalak haien fatxadetan jardun eta garbitzeko bidea izateko hartara.

El Ayuntamiento de Eibar ha puesto en marcha, desde finales del pasado año, una campaña de limpieza y borrado de grafitis y pintadas previa recogida de peticiones por los diversos barrios del municipio. Dicha campaña ofrecía la limpieza gratuita, por parte de la Administración municipal, a aquellas comunidades de propietarios que solicitaran la limpieza de las paredes de sus inmuebles, previa la presentación de una serie de documentación para facilitar y autorizar la actuación sobre dichas fachadas y proceder a su limpieza.

Hala, kanpaina horri esker, Eibarko hirurogeita hamar kale baino gehiago garbitu dituzte —eskariak jaso eta gero—, Udalaren titularitateko puntu batzuk barne, eta hamabi pertsona hartu dituzte lan horiek egiteko. Udaltzaintzak, berriz, hamabi pertsonari ireki dio espedientea, eta neurri gogorragoak hartzea pentsatzen ari da pintadak egiten dituzten pertsonen kontra, kontuan izanda diru zigorrak ez direla nahikoa ekintza horiek galarazteko.

Así, al hilo de esta campaña, -tras el período de recogida de peticiones- se han limpiado más de sesenta calles de Eibar, incluyendo puntos de titularidad municipal y se han contratado a doce personas para proceder a dichos trabajos. Por su parte, la Policía Municipal ha abierto expediente a doce personas y está pensando en tomar medidas más drásticas contra los autores de las pintadas, habida cuenta de que la sanciones económicas no son suficientes para acabar con estas prácticas.

Orain hurrengo batzordean, Udalaren garbiketa taldeek gure hiriko pintadak eta graffitiak garbitzeko egiten duten lanaren berri eman zuen zinegotzi eskuordedunak; gune publikoetan egiten direnak garbitzeko, betiere, zeren eta Miguel Angel Diez zinegotziak gogorarazi zuen bezala, toki pribatuetakoak

La pasada Comisión, el Concejal Delegado dio cuenta del trabajo que las brigadas de limpieza municipales realizan para eliminar las pintadas y grafitis de nuestra ciudad, siempre en espacio público, ya que recordó el señor Díez que en propiedad privada corresponde dicha tarea a los titulares de los bienes, salvo

garbitzea haien titularrei tokatzen zaie, baldin eta Udalari berariaz garbitzeko eskatzen ez badiote behintzat.

petición expresa de éstos al Ayuntamiento.

Azkeneko urte hauetan geroz eta pintada eta graffiti gehiago dago jabetza pribatuko ondasunetan, eta esku-hartze baten premia dute garbitzeko. Eibarko Udala egiten ari den proba gure hirian ere egiteko modukoa dela iruditzen zaigu. Hori dela eta, hauxe da Talde Popularrak dakarren MOZIOA:

En los últimos años estamos asistiendo a una cada vez mayor presencia de pintadas y grafitis en bienes de propiedad privada, y que requieren de una actuación para su limpieza. El Ayuntamiento de Eibar ha puesto en marcha la experiencia mencionada que, entendemos, podría tener cabida en nuestra ciudad, y es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta Gobernu Taldeari, Eibarko Udalak egiten duena aintzakotzat hartu eta kanpaina bat jartzeko martxan hormetako, kaleko altzarietako eta etxeetako fatxadetako pintadak eta graffitiak garbitzeko, gune pribatuetan eta udalarenetan direnak barne.

1.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que, a semejanza del Ayuntamientro de Eibar, pongan en marcha una campaña de limpieza de pintadas y grafitis de muros, mobiliario urbano y fachadas de edificios, incluyendo espacios privados y de titularidad municipal.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta Gobernu Taldeari kanpaina egiteko toki batzuk pentsatzeko, eta graffitiak eta pintadak garbitzeko kanpainaren eta kanpainan parte hartzeko baldintzen berri emateko jabekideen erkidegoei eta interesatuei, oro har.

2.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que, para tal fin, prevean las zonas en las que llevar a cabo la campaña, y se informe las comunidades de propietarios e interesados, en general, de la puesta en marcha de esta iniciativa y de los requisitos para proceder a la limpieza de grafitis y pintadas.

3.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta Gobernu Taldeari Donostian erroldatuta eta lanik gabe dauden pertsonak hartzeko graffitiak eta pintadak gartzeko lan horiek egiteko.

3.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que proceda a la contratación de personas paradas empadronadas en San Sebastián para llevar a cabo las tareas de limpieza de grafitis y pintadas.

4.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta Gobernu Taldeari neurri zorrotzagoak jartzeko bandalismo klase hori galarazteko, eta jarraibide batzuk emateko Udaltzaingoari gure hirian pintadarik eta

4.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que ponga en marcha medidas más drásticas para evitar este tipo de vandalismo y que dé instrucciones a la

graffitirik ez egiteko ahaleginak inplementatzeko.

Guardia Municipal para que implemente los esfuerzos de cara a evitar que se realicen pintadas y grafitis en nuestra ciudad.

5.- Donostiako Udalbatzak gizabidez jokatzeko eskatzen die herritarrei, gure hiriko fatxada, kale eta kaleko elementu guztiak garbi eduki ditzagun.

5.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián hace un llamamiento al civismo de la ciudadanía para mantener limpias las fachadas, las calles y cualquier elemento de la vía pública en nuestra ciudad.

Donostian, 2018ko apirilaren 20an

En Donostia/ San Sebastián, a 20 de Abril de 2018

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea".

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular".

Eztabaida hasita, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. José María Murguiondo Casal, D. Ernesto Gasco Gonzalo y D. Martin Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**19. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 19:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**19. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 19:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**19. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 19:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**19. KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 19:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**19. KONTROL MOZIOAREN 5. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 5 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 19:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.1.20. Kontrol mozioa, PP Taldeak aurkeztua, Estatuko ikurrak direla eta.**

“Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu, eta MOZIO hau aurkezten dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak 2018ko uztailaren 16an izan zuen bileran Estatuko ikurrez egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Gure hirian, zoritxarrez, sarritan ikusten dugu zer-nolako mespretxuz erabiltzen dituzten tokiko administrazioek espainiar guztien -eta horien artean donostiarron- ikurrak. Batu beharrean, tokiko eta probintzietako agintariek nahiago dute sektarismoan kokatu eta administrazioak aurrez aurre jarri, herritarrez baliatuz.

Herritarrei deigarri egiten zaizkie hainbat kontu: batetik, donostiar guztion etxeko Udalbatza aretoan ez izatea, ez Espainiako banderarik, ez Felipe VI.a erregearen bustorik, legeak dioen bezala. Gogoan izan behar dugu, martxoan, Bartzelonako epaitegi batek Udalari gogorarazi ziola Erregearen erretratua “udalbatza aretoko lehentasunezko eta ohorezko toki batean” jarri beharra zegoela, Espainiako beste udaletxe guztietan bezalaxe. Bada, gure hirian ere falta dira ikur nazionalak.

Horrez gain, herritar askorentzat mingarria da

**II.1.20. Moción de control que presenta el Grupo PP relativa a los símbolos que representan al Estado.**

“Miren Albistur Garmendia, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Servicios Generales, celebrada el día 16 de Abril de 2018, relativa a los símbolos que representan al Estado.

JUSTIFICACIÓN

En nuestra ciudad, desgraciadamente, es habitual contemplar el desprecio que, desde Administraciones locales, se hace a los símbolos que representan a todos los españoles, entre los que nos encontramos los donostiarras. Lejos de sumar, los gobernantes locales y provinciales prefieren instalarse en el sectarismo y enfrentar Administraciones valiéndose de los ciudadanos.

En este sentido son varias cuestiones las que llaman la atención de la ciudadanía: en primer lugar, que en el interior del Salón de Plenos de la casa de todos los donostiarras no figure ni la bandera de España ni el busto del rey Felipe VI, como marca la ley. En este contexto, hay que recordar que, el pasado mes de marzo, un juzgado de Barcelona recordaba al Ayuntamiento la obligación de colocar el retrato del Rey "en un lugar preferente y de honor de su salón de plenos", como en todos los ayuntamientos españoles. Estas ausencias de los símbolos nacionales también se dan en nuestra ciudad.

Otra cuestión que molesta a muchos

udaletxearen kanpoko aldean ere ez egotea bandera nazionala, legeak ezartzen duen bezala. Gure taldeak eskatuta, agintaldi honen hasieran esan ziguten, 2016ko Europako Kultur Hiriburutza zela eta, udaletxeko fatxadan informazio ugari eta askotariko olanak egongo zirela jarrita eta ez zela komeni Alderdiederreko sarreran bandera nazionala jartzea, hor egoten diren gainerako banderekin batera.

ciudadanos es que en el exterior de la casa consistorial tampoco ondee la bandera nacional, como marca la ley. A instancias de nuestro Grupo se nos dijo -en un primer momento del presente mandato- que, con motivo de la celebración de la Capitalidad Cultural Europea de 2016, la fachada del Ayuntamiento iba a albergar diversa información y lonas varias que no hacían aconsejable la instalación de la bandera nacional, acompañada del resto de banderas que suelen estar, a la entrada del Ayuntamiento por Alderdi Eder.

Hiriburutza amaitu zen; ez, ordea, aitzakiak. Eta ez dakigu zer aitzakia gehiago dituen gobernu taldeak legea ez betetzeko eta espainiar guztionak diren ikurrak ez errespetatzeko. Ogasuneko zinegotzi ordezkariak azken batzordean esan zituen hitzek ere ez gaituzte lasaitzen; izan ere, Justizia Auzitegiek, azken urteetan, oso argi utzi dute zer dioen legeak Estatuko ikurren gainean, bai udaletxeko balkoi nagusian banderak jartzeari dagokionez, bai eta udalbatza aretoan Felipe VI.a erregearen irudia eta Espainiako bandera jartzeari dagokionez ere.

La Capitalidad finalizó pero las excusas no. Y no sabemos qué excusas nos tiene preparadas el Equipo de Gobierno para no hacer cumplir la ley, y no respetar los símbolos que nos representan a todos los españoles. Las palabras del Concejal Delegado de Hacienda en la última Comisión no tranquilizan tampoco, ya que los Tribunales de Justicia, en los últimos años, han dejado muy clara cuál es la obligación legal en relación a los símbolos del Estado, tanto en cuanto a las colocación de las banderas en el balcón principal del Ayuntamiento, así como la imagen del Rey Felipe VI y la bandera nacional en el Salón de Plenos.

Uste dugu Donostiako Udalak aitzakiak jartzeari utzi behar diola, eta etsenplu eman eta legea bete behar duela, saihestu beharrean. Hori dela eta, hauxe da talde popularrak aurkezten duen MOZIOA:

Creemos que el Ayuntamiento de San Sebastián debe dejar de poner excusas y dar ejemplo a la hora de cumplir la legalidad, en lugar de evitarla, y es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta gobernu taldeari, indarrean den araudia betez, jar dezatela Felipe VI. erregearen irudia udaletxeko Udalbatza aretoko lehentasunezko toki batean.

1.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que, en cumplimiento de la normativa vigente, coloque la efigie de S.M. el Rey, Felipe VI, en lugar preferente del Salón de Plenos del Ayuntamiento.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta gobernu taldeari Espainiako

2.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de

bandera jartzeko, gainerako bandera ofizialekin batera, indarrean den araudia betez eta han agintzen den eran.

Gobierno a que haga ondear la bandera de España, junto al resto de banderas oficiales, en cumplimiento de la normativa vigente y en los términos señalados por la misma.

3.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta gobernu taldeari, indarrean den araudia betez, jar dezatela Espainiako bandera udaletxeko Udalbatza aretoko lehentasunezko toki batean.

3.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que, en cumplimiento de la normativa vigente, coloque la bandera de España en lugar preferente del Salón del Plenos del Ayuntamiento.

Donostia, 2018ko apirilaren 20a

En Donostia/ San Sebastián, a 20 de Abril de 2018

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularreko zinegotzia".

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular".

Eztabaida hasita, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. José María Murguiondo Casal, D. Ernesto Gasco Gonzalo y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 10 – (7) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 9 – EAJ-PNV.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 – (7) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 9 – EAJ-PNV.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.1.24. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, superabitaren gainekoa.**

**II.1.24. Moción de control que presenta el Grupo PP relativa al superávit.**

"Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen dion babesa aintzakotzat

"Miren Albistur Garmendia, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para

hartu, eta MOZIO hau aurkezten dio Udalbatzari, Ogasun Batzordeak 2018ko apirilaren 16n izan zuen bileran superabitaren gainean egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

2017. urtea 3.462.269,16 euroren superabitarekin itxi du Udalak. Komunikabideren batean irakurri dugunez, Udal Gobernua pentsatzen ari da diru hori hiria asfaltatzeko erabiltzea.

Zinegotzi ordezkariak adierazi zuen 1 eta 1,5 milioi euri artean bideratuko direla asfaltatze kanpaina indartzeko, eta espero dugu hala izatea, gure hiriko bide asko oso egoera txarrean baitaude. Gaineratu zuen ez daukatela buruan geratzen den superabitarekin beste proiekturik finantzatzea eta zerga presioaren gehikuntza ez dela handia izango.

Udalak 3 milioi eurotik gorako superabitarekin itxi ditu azken hiru urteetako ekitaldiak: 2015ean, 3.3753156,20 €; 2016an, 3.957.233,69 € eta 3.462.269,16 €.

Azken hiru ekitaldietako datuekin, uste dugu, gobernu taldeak hurrengo bi hilabeteetan udal zergak berrikustea onartu behar duela eta, ez dela zerga presioa igo behar.

Hori dela eta, Talde Popularrak MOZIO hau aurkezten du:

Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta gobernu taldeari aintzat har dezatela 2019an udal zergak ez igotzeko aukera.

su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Hacienda, celebrada el día 16 de Abril de 2018, relativa el superávit.

JUSTIFICACIÓN

El año 2017 ha cerrado con un superávit para el Ayuntamiento de 3.462.269,16€. Hemos leído en algún medio de comunicación que el Gobierno Municipal baraja la posibilidad de destinar el mismo al asfaltado de la ciudad.

El concejal Delegado afirmó que se destinarán entre 1 millón de € y 1,5 millones de € para reforzar la campaña de asfaltado y esperamos que así sea debido al mal estado en el que se encuentran muchos viales de nuestra ciudad. Añadió que no tenían ningún proyecto en mente a financiar con el superávit restante y que el incremento de la presión fiscal no sería grande.

En los últimos tres años el ayuntamiento ha cerrado los ejercicios con cifras superiores a los 3 millones de € de superávit (2015 con 3.3753156,20€; 2016 con 3.957.233,69 € y el 2017 con 3.462.269,16 €)

Con los datos de los tres últimos ejercicios la presión fiscal para los impuestos municipales, cuya revisión se aprobará en los próximos dos meses por parte del equipo de gobierno, consideramos que no debieran de incrementarse.

Es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

El Ayuntamiento Pleno de Donostia/San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que valoren la posibilidad de no incrementar los impuestos municipales para el ejercicio 2019.

Donostia, 2018ko apirilaren 20a

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularreko zinegotzia".

En Donostia/ San Sebastián, a 20 de Abril de 2018

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular".

Eztabaida hasita, Miren Albistur Garmendia andreak eta Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/la señor/a D.ª Miren Albistur Garmendia y D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.1.27. Kontrol mozioa, PP Taldeak aurkeztua, bizikletak alokatzeko sistema publikoaren gainean.**

"Talde Popularreko zinegotzi Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu, eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Zerbitzu Orokorren Batzordeak 2018ko apirilaren 16an izan zuen bileran bizikletak alokatzeko sistema publikoaren gainean egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Gure hirian bizikletak alokatzeko sistema publikoa abian jarri zenetik, gorabehera ugari izan dira zerbitzu horrekin. Lehenengo urteetan, bandalismo arazo larriak izan ziren, eta horrek arriskuan jarri zuen sistema. Agintaldi honetan, zenbait alderdi zuzendu dira, baina oraindik ere akats handiak daude.

**II.1.27. Moción de control que presenta el Grupo PP relativa al sistema público de alquiler de bicicletas.**

"Miren Albistur Garmendia, concejal del grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Servicios Generales, celebrada el día 16 de Abril de 2018, relativa al sistema público de alquiler de bicicletas.

JUSTIFICACIÓN

Desde su puesta en marcha, el sistema público de alquiler de bicicletas en nuestra ciudad ha pasado por muchas vicisitudes. Los primeros años hubo serios problemas de vandalismo que pusieron en riesgo el sistema. En el presente mandato se han corregido algunas cuestiones, pero el sistema sigue

adoleciendo de importantes defectos.

Hasieran, sistema publiko hau kudeatzen duen enpresak hitzeman zuen hainbat bizikleta eta estazio jarriko zituela. Aurreikuspen hori ez da bete, ordea, eta bizikleta publikoaren zerbitzurik ez da hiriko goiko auzoetan. Hain zuzen, ez dago estazio bakar bat ere auzo horietan, nahiz eta bizikletek baduten maldan gora laguntzeko mekanismo bat, gure hiriko aldapak ez baitira txikiak.

En su origen, la empresa que gestiona este sistema público en nuestra ciudad se comprometió a dotar al mismo de un número de bicicletas y de estaciones determinado. Dicha previsión no se está dando y, como consecuencia, no se está dando servicio de bicicleta pública a los barrios altos de la ciudad, donde no hay ninguna estación, pese a que las bicicletas están dotadas de un mecanismo para facilitar el acceso a zonas en pendiente que, en nuestra ciudad, no son cojas.

Agintaldi honetan, gure talde politikoa ulerbera eta eraman handikoa izan da sistema honen zailtasunekin, ikusita ez zutela lortzen abian jartzea baina joan direla zailtasunak gainditzen. Hala ere, gauza asko dago oraindik zuzentzeko. Horri dagokionez, ez gara bat etorri Udal Gobernuak arlo honetan aplikatu dituen politikekin, herritarrei egiten baitiete kalte. Azken batean, ez da hau herritarrei agindu zien zerbitzua.

A lo largo del presente mandato, nuestro Grupo político ha sido comprensivo y paciente con las dificultades propias de un sistema que no cavaba de arrancar y que ha ido superando dificultades. Sin embargo, quedan muchas cuestiones pendientes. En este sentido, hemos discrepado con las políticas que, en relación a esta cuestión ha puesto en marcha el actual Gobierno Municipal, pues se está perjudicando al ciudadano; y no era este el servicio que se había comprometido ofrecer a la ciudadanía.

2016an, Udal Gobernuak azterlan bat egiteko eskatu zion kanpoko enpresa bati. Azterlan horretan proposatzen zen hainbat neurri hartzea herritarrei ematen zaien zerbitzua hobetzeko, eta ondorioztatzen zen negozioak bideragarri ere izan behar duela zerbitzua ematen duen enpresarentzat. Hala ere, ez dakigu azterlan horren ondorioak kontuan hartu ote diren; ikusi duguna da gorabehera etengabeak izan direla Mugikortasun Zuzendaritzak gai honen inguruan hartu duen irizpidean.

En 2016 el Gobierno Municipal encargó un estudio externo que proponía la adopción de una serie de medidas en relación a la mejora del sistema, del servicio ofrecido a la ciudadanía, conjugándolo con la necesaria viabilidad del negocio de la empresa que presta el servicio. Sin embargo, no tenemos constancia de que se haya tenido en cuenta ninguna de las conclusiones de ese estudio, y hemos asistido a un vaivén constante en el criterio que adoptaba el Departamento de Movilidad sobre este tema.

Joan den urtearen erdialdera, Mugikortasuneko zinegotzi ordezkariak adierazi zuen hainbat neurri aztertzen ari zela Zuzendaritza, hala nola tarifa aldatzea eta erabiltzaileek gehien

A mediados del año pasado, la Concejal Delegada de Movilidad apuntaba una serie de medidas a adoptar que el Departamento estaba barajando como eran, entre otros, el de

erabiltzen dituzten ibilbideak zigortzea.

la consideración del cambio tarifario, o la penalización de los trayectos más demandados por los usuarios en nuestra ciudad.

2018ko apirilean ez dakigu kasu zeri egin. Dirudienez, Mugikortasun Zuzendaritzak ez du asmorik sisteman ezer aldatzeko eta dagoen bezalaxe utziko du. Mugikortasuneko zinegotzi ordezkariari horri buruz galdetu genion, eta hark esan zigun haren atalak erabaki duela oraingo bizikleta elektrikoak eta elektriko ez diren beste batzuk (konbentzionalak) konbinatzea, eta horretarako behar diren euskarriak jarri beharko direla.

En abril de 2018 no sabemos a qué atenernos. Al parecer, el Departamento de Movilidad no tiene pensado hacer cambios en el sistema, y dejarlo como está. Preguntada al respecto la Concejal Delegada de Movilidad, nos dice que, desde su Departamento, se ha tomado la decisión de combinar las actuales bicis eléctricas con otras no eléctricas (o convencionales), para lo que habrá de disponerse de los correspondientes anclajes para ellas.

Horrez gain, Arana andreak esan zigun aldaketa gehiago ere izango direla baina aurrera esango digutela zein izango diren aldaketa horiek. Ez da unea, ez eta gai egokia ere, asmakizunetara jolasteko; esperotako helburuak betetzen ez dituen sistema bati buruz erantzun zehatzak eta sinesgarriak emateko garaia da. Uste dugu fundamentu handiagoa behar dela interes publikoak kudeatzeko orduan, eta, hori dela eta, hauxe da talde popularrak aurkezten duen MOZIOA:

También nos dijo la señora Arana que iba a haber más cambios, pero que ya se nos dirían más adelante. No es el momento ni el asunto para jugar a los acertijos, sino para dar respuestas ciertas y creíbles sobre un sistema que no cumple los objetivos para los que fue puesto en marcha. Creemos que es necesario un mayor fundamento a la hora de gestionar los intereses públicos, y es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta gobernu taldeari ziurta dezatela betetzen direla gure hirian bizikletak alokatzeko zerbitzuaren emakida duen enpresarekin sinatutako kontratuaren baldintzak, hitzartutako estazioak eta bizikletak izan ditzagun.

1.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que aseguren el cumplimiento de las condiciones dispuestas en el contrato con la empresa concesionaria del servicio público de alquiler de bicicletas en nuestra ciudad, al objeto de contar con el número de estaciones y de bicicletas comprometido.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta gobernu taldeari ziurta dezatela gure hirian betetzen direla bizikletak alokatzeko zerbitzuaren emakida duen enpresarekin sinatutako kontratuaren baldintzak, eta eska diezaiotela hari hiriko goiko auzoetan estazioak eta bizikletak

2.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que aseguren el cumplimiento de las condiciones dispuestas en el contrato con la empresa concesionaria del servicio público de alquiler de bicicletas en nuestra ciudad, y exija a ésta lo dispuesto en relación a la

jartzeko, auzo horietan halako zerbitzurik ematen ez dela eta.

habilitación de estaciones y bicicletas en los barrios altos de la ciudad, donde no se da servicio a la ciudadanía.

Donostia, 2018ko apirilaren 24a

En Donostia/ San Sebastián, a 24 de Abril de 2018

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea”.

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular”.

Eztabaida hasita, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/la señor/a D. José María Murguiondo Casal y D.ª Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**ETA BILERAK BESTE XEDERIK EZ DUENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO EGUNEKO ARRATSALDEKO LAUAK ETA LAURDENETAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:**

**Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS DIECISÉIS HORAS Y QUINCE MINUTOS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, EL SECRETARIO, DOY FE:**

**LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:**

**IDAZKARIA: / EL SECRETARIO:**